



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

**SOLDATAK, PENTSIOAK,
LANGABEZIA
PRESTAZIOAK ETA
GIZARTE
AURREIKUSPENEKO
ERRESKATEAK
GIPUZKOAN**

2014



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1	Datuen jatorria	2
1.2	Aztertutako kontzeptuak.....	3
1.3	Aztertutako kolektiboak	4
1.4	Aztertutako aldagaiak.....	5
2.	IKUSPEGI OROKORRA	7
3.	SOLDATAK.....	10
3.1.	Soldatak sexuaren arabera.....	14
3.2.	Soldatak nazionalitatearen arabera	18
3.3.	Soldatak adinaren arabera	20
3.4.	Soldatak LGSaren tarteen arabera	21
3.5.	Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik.....	22
3.5.1.	Izaera juridikoaren arabera.....	23
3.5.2.	Langile kopuruaren arabera.....	27
3.5.3.	Sektoreen arabera.....	28
4.	PENTSIOAK	33
4.1	Pentsioak sexuaren arabera	34
4.2.	Pentsioak adinaren arabera.....	38
4.3.	Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera	39
5	LANGABEZIA PRESTAZIOAK	40
5.1.	Langabezia prestazioak sexuaren arabera	41
5.2.	Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera.....	43
5.3.	Langabezia prestazioak adinaren arabera	44
5.4.	Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera	45
6	GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK.....	46
6.1.	Errenta moduan egindako erreskateak	46
6.1.1.	Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	47
6.1.2.	Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera .	50
6.1.3.	Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera	50
6.1.4.	Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	52
6.2.	Kapital moduan egindako erreskateak	53
6.2.1.	Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	54
6.2.2.	Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera..	56
6.2.3.	Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera	57
6.2.4.	Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	58
6.3.	Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak	60



1. SARRERA

Txosten honen helburua da Gipuzkoako lan-merkatuaren ikuspegi orokor bat ematea, eta aldi berean denboran zehar izan duen bilakaera ikustea.

Gainera, eta berritasun bezala, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Azterketa bi alderditik egingo da:

- Soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioak eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak jasotzen dituzten pertsonak aztertuta.
- Soldatak ordaintzen dituzten entitateak aztertuta.

1.1 Datuen jatorria

Aztertzen diren datuak 190 ereduan aitortutakoak dira: Lan etekinen, ekonomi jardueren etekinen eta sarien gaineko atxikpenak eta konturako sarrerak (urteko laburpena).

Aitorpen hori soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioa eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak ordaintzen dituzten erakunde guztiek aurkezten dute, edozein izanik ere bere nortasuna, bere jarduera, tamaina edo izaera publiko/pribatua.

Aitortzaile bakoitzak errenten hartzaileen zerrenda bat aurkezten du: ordaindutako zenbatekoa, kontzeptua... Zerrenda horietan PFEZri lotutako errentak lortzen dituzten pertsona guztiak agertzen dira, nahiz eta errentak salbuetsiak egon, zenbateko minimora heltzen ez delako atxikipenik ez egin...

Jasotzen diren datuetan agertzen ez direnak etxeetan lan egiten dutenen soldatak dira, eta hau horrela da ordaintzailea ez delako enpresaria eta 190 eredua ez duelako aurkezten.



Beraz, informazioa osoa eta zehatza da. Eta horren bidez, bai Gipuzkoako biztanleek jasotako eta bai Gipuzkoako enpresek sortutako lan errenten kuantifikazioa eta deskribapena lortzen da.

Dena den, bai oro har eta gehienbat batez bestekoak aztertzerakoan, kontuan izan behar da, nahasita agertzen direla urte osoa lan egiten dutenen datuak eta aldi baterako kontratuak dituztenen datuak, lanaldi osoa egiten dutenena eta lanaldi partzialekoak...

1.2 Aztertutako kontzeptuak

- **Laneko errentak**

190 ereduan A gakoarekin datozen errentak.

- **Pentsioak**

190 ereduan B gakoa (BGAEetatik, pentsio planetatik eta gainerako aurreikuspen sistematatik jasotako prestazioei dagokien azpigakoa izan ezik), eta L06 eta L07 gakoarekin datozen errentak. Hau da, Gizarte Segurantzatik, haren ordezeko entitateetatik eta Klase Pasiboen erregimenetatik jasotako pentsio publikoak.

- **Langabezia prestazioak**

190 ereduan C eta D gakoarekin datozen errentak.

- **Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak**

190 ereduan B02 gakoa (2014an B20, B21, B22, B23, B24, B25 eta B26 gakoak) dutenak: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate, Pentsio Plan, Mutualitate eta antzeko sistemetatik jasotako erreskateen zenbatekoak.

Hemen bi eratako erreskateak aztertuko dira:

- Errenta moduan jasotakoak.
- Kapital moduan jasotakoak.

Azterketatik kanpo geratzen dira 190 ereduan agertzen diren beste errenta mota batzuk; esaterako, jarduera ekonomikoko etekinak (nekazaritza edo profesionalak), sariak, irudi-eskubideen lagapena, kontseilari eta administrarritza dietak.



1.3 Aztertutako kolektiboak

- **Jasotzaileak**

Jasotzailearen ikuspegitik bakarrik kontuan hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan helbideratuak dauden pertsonen datuak, nahiz eta ordainketa beste lurralde batean dagoen ordaintzaile batek egina izan.

190 ereduaren berezitasunetako bat aniztasuna da: gerta daiteke pertsona batek urte batean zehar bi ordaintzaile edo gehiagoren ordainketak jasotzea, edota errenta mota desberdinak jasotzea (laneko errenta eta langabezia prestazioa; laneko errenta eta pentsioa...).

Orduan, hiru kolektibo desberdintzen dira:

1. **Soldatapekoak:** laneko errentak lortzen dituztenak. Zer gertatzen da pertsona batek ordaintzaile bat baino gehiagotik laneko errentak jasotzen dituenean? Kasu horietan, pertsona hori proportzionalki zenbatuko da entitate bakoitzean soldatapeko bezala: entitate bakoitzak ordaindutakoa, zati laneko errenta osoak. Esaterako: pertsona batek 40.000 euro jasotzen ditu urtean: 10.000 euro A enpresatik eta 30.000 euro B enpresatik. Oro har, soldatapeko 1 bezala kontabilizatuko da; baina adibidez jardueraren arabera sailkatzerakoan A enpresan 0,25 soldatapeko bezala hartuko da ($10.000/40.000$), eta B enpresan 0,75 bezala ($30.000 / 40.000$).
2. **Langabetuak:** langabezia-prestazioak jasotzen dituztenak.
3. **Pentsiodunak:** pentsioak jasotzen dituztenak, B02 gakoeko errentak jasotzen dituztenak izan ezik (2014an B20, B21, B22, B23, B24, B25 eta B26 gakoak).

- **Ordaintzaileak**

Laneko errentei dagokionez, azterketa beste ikuspegi batetik ere egiten da: ordaintzailearen ikuspegitik. Kasu horretan kontuan hartzen dira Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileek ordaintzen dituzten soldata guztiak, nahiz eta jasotzaileak beste lurralde batean helbideratuak egon.



1.4 Aztertutako aldagaiak

Txostenean zehar aztertuko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Jasotzaile kopurua
- Errentak guztira
- Batez besteko errenta
- Ordaintzaile kopurua

Sailkapenak

Datuak azaltzerakoan zenbait sailkapen erabiliko dira:

- Jasotzailearen adina
- Jasotzailearen sexua
- Jasotzailearen nazionalitatea
- Errentaren tartea
- Ordaintzailearen jarduera sektorea
- Ordaintzailearen izaera juridikoa
- Ordaintzailearen tamaina (langile kopuruaren arabera)



		Aldagaiak	Sailkapenak
KOLEKTIBOAK	ENPLEGUA	JASOTZAILEAK	Soldatapeko kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata Adina Sexua Errenta tartea Nazionalitatea Udala Eskualdea
		ORDAINTZAILEAK	Ordaintzaile kopurua Jasotzaile kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata Izaera juridikoa Jarduera sektorea Tamaina
	LANGABEZIA-PRESTAZIOA	Langabetu kopurua Prestazioaren batez bestekoa Prestazioa guztira Sexua Adina Prestazioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea	
	PENTSIOAK	PENTSIO PUBLIKOAK; MUTUALITATEAK ETA LAGUN-ARO INSS ORDEZKATZEN DUTENEAN	Pentsiodun kopurua Pentsioaren batez bestekoa Pentsioa guztira Sexua Adina Pentsioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea
	BGAE - PP – MUTUALITATE ETA ANTZEKO SISTEMEN ERRESKATEAK; ERRENTA MODUAN ETA KAPITAL MODUAN	Pertsona kopurua Erreskateen zenbatekoa Erreskateen batez bestekoa Sexua Adina Erreskatearen tartea Eskualdea	



2. IKUSPEGI OROKORRA

2014. urtean 469.265 gipuzkoarrek jaso dituzte soldatak, pentsioak edota langabezia prestazioak. Guztira jasotako zenbatekoa 10.253 milioi euro dira, hau da, 21.849 euro batez beste.


- Taularen lehenengo zutabeen 2014an zehar soldatak bakarrik jaso dituztenak azaltzen dira. Gutxi gora behera erdia dira (241.456 pertsona; %51,5).
- Pentsioak bakarrik (2. zutabea) 154.091 pertsonak jaso dituzte, guztien %32,8.
- 3. zutabeen langabezi prestazioak bakarrik jaso dituztenak aztertzen dira: 17.739 pertsonak (guztien %3,8).
- Lana egiteagatik soldata eta sistema publikoko pentsioa 12.627 pertsonak (guztien %2,7) jaso dute (4. zutabea).
- 5. zutabeen laneko soldata eta langabeziako prestazioa jaso dituztenak daude: 40.429 pertsona (guztien %8,6).
- Pentsioa eta langabezia prestazioa 1.920 pertsonak jaso dute (6. zutabea).
- Eta hiru etekin motak (lana, pentsioa eta langabezia prestazioa) 1.003 pertsonak jaso dute (7. zutabea).

Taula 1. 2014ko datuen ikuspegi orokorra

		Soldatapekoak (1)	Pentsiodunak (2)	Langabetuak (3)	Soldatapekoak eta pentsiodunak (4)	Soldatapekoak eta langabetuak (5)	Pentsiodunak eta langabetuak (6)	Soldatapekoak, pentsiodunak eta langabetuak (7)	GUZTIRA
SOLDATAK	Pertsonak	241.456			12.627	40.429		1.003	295.515
	Zenbatekoa guztira (€)	6.431.054.127			207.717.090	523.334.488		11.176.333	7.173.282.038
	Batez bestekoa (€)	26.634			16.450	12.945		11.143	24.274
PENSIOAK	Pertsonak		154.091		12.627		1.920	1.003	169.641
	Zenbatekoa guztira (€)		2.601.492.095		213.547.479		19.693.415	10.898.400	2.845.631.389
	Batez bestekoa (€)		16.883		16.912		10.257	10.866	16.774
LANGABEZIA PRESTAZIOAK	Pertsonak			17.739		40.429	1.920	1.003	61.091
	Zenbatekoa guztira (€)			95.017.236		128.383.300	7.709.939	3.075.217	234.185.692
	Batez bestekoa (€)			5.356		3.176	4.016	3.066	3.833
GUZTIRA	Pertsonak	241.456	154.091	17.739	12.627	40.429	1.920	1.003	469.265
	Zenbatekoa guztira (€)	6.431.054.127	2.601.492.095	95.017.236	421.264.569	651.717.788	27.403.354	25.149.950	10.253.099.119
	Batez bestekoa (€)	26.634	16.883	5.356	33.362	16.120	14.273	25.075	21.849



Grafikoa 1 – Jasotzaileen banaketa etekin motaren arabera eta talde esanguratsuenen batez bestekoa




2014an soldatak bakarrik jaso zituzten pertsonen batez besteko soldata 26.634 euroko izan zen; pentsioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko pentsioa 16.833 eurokoa izan zen; eta langabezi prestazioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko prestazioa 5.356 eurokoa.

Jasotako zenbatekoari dagokionez, 10.253 milioi eurotik, gehiengo nagusia (7.173 milioi euro; %70,0) soldatak dira; pentsioak guztiaren %27,8 dira (2.846 milioi euro), eta langabezia prestazioak 234 milioi euro (guztiaren %2,3).




Grafikoa 2 - Etekinen banaketa etekin motaren arabera



Etekin motaren arabera, batez bestekori handiena laneko etekinek dute, 24.274 euro; pentsioen batez bestekoa 16.774 eurokoa da; eta langabezia prestazioena 3.833 eurokoa.

Grafikoa 3 - Etekinen mota bakoitzaren batez bestekoa





3. SOLDATAK

2014. urtean laneko soldatak 295.515 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %0,9 gehiagok. Zenbateko osoa, aldiz, %0,7 igo da 2013rekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 24.274 euro izan dira.

Taula 2. Soldaten bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2003	284.189		5.548.759.488		19.525	
2004	289.575	1,9	5.844.190.797	5,3	20.182	3,4
2005	297.303	2,7	6.214.733.120	6,3	20.904	3,6
2006	304.199	2,3	6.606.000.774	6,3	21.716	3,9
2007	312.861	2,8	7.106.430.122	7,6	22.714	4,6
2008	312.259	-0,2	7.478.649.226	5,2	23.950	5,4
2009	302.124	-3,2	7.284.519.653	-2,6	24.111	0,7
2010	297.507	-1,5	7.222.796.657	-0,8	24.278	0,7
2011	295.411	-0,7	7.284.565.382	0,9	24.659	1,6
2012	299.629	1,4	7.218.677.176	-0,9	24.092	-2,3
2013	292.767	-2,3	7.122.472.681	-1,3	24.328	1,0
2014	295.515	0,9	7.173.282.038	0,7	24.274	-0,2
2003/2014		4,0		29,3		24,3

Zenbatekoak eurotan

Azken hamabi urteetan soldatak jaso dituzten pertsona kopurua %4,0 igo da. Punturik altuena 2007n eman zen: 312.861 soldatapeko zeuden.

Hortik aurrera, eta krisiaren ondorioz, soldatapeko kopurua etengabe jaisten hasi zen; igoera bakarrak 2012 eta 2014. urteetan eman dira (+%1,4 eta +%0,9).

Jasotako soldatei dagokionez, %29,3 igo dira 2003. urtetik. Kasu honetan daturik handiena 2008. urtean lortu zen (7.479 milioi euro). Hortik aurrera, 2011 eta 2014 izan ezik, urtero jaitsi egin da, aurtengo 7.173 milioi euro arte.

Pertsonako batez besteko soldata %24,3 igo da hamabi urte hauetan: 19.525 euroatik 24.274 euro tara. Zenbatekorik handienak azken urteetan izan ditu, gehien bat, pertsona kopuruaren bilakaera soldatena baino negatiboagoa izan delako. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %27,8 igo dela.



Mediana edo erdiko balioa aztertuta, batez besteko soldataren antzeko bilakaera izan duela ikusi daiteke; baina 2003-2014 epealdian medianak metatutako igoera batez bestekoa baino 3,5 puntu txikiagoa izan da. Mediana %20,8 igo da eta batez bestekoa %24,3. Medianaren igoera txikiago horrek erakusten du soldata baxuak, soldata altuak baina gutxiago hazi direla.

Taula 3. Medianaren bilakaera (eurotan)

	Zenbatekoa	Bar. %
2003	18.048	
2004	18.286	1,3
2005	19.116	4,5
2006	19.795	3,6
2007	20.584	4,0
2008	21.708	5,5
2009	21.816	0,5
2010	21.904	0,4
2011	22.322	1,9
2012	21.934	-1,7
2013	21.867	-0,3
2014	21.805	-0,3
2003/2014		20,8

Soldatak nola banatzen diren ezagutzeko, bere banaketa aztertzen da dezilen arabera. Horiek osatzen dira, soldata jasotzaile guztiak soldata txikienetik handienara ordenatuta, eta pertsona kopuru berdineko taldeak osatuz. Horrela, talde edo dezila bakoitzak soldata jasotzen duten pertsona kopuru osoaren %10a suposatzen du: lehenengo dezilan (D1) sartzen dira soldatarik txikienak jasotzen duten %10a, eta azken dezila (D10) osatuta dago soldatarik handienak jasotzen duten pertsonen %10arekin.

Taula 4. Soldaten banaketa portzentuala dezilen arabera

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
D1	0,7	1,1	0,6	0,6	0,6	0,7	0,6	0,7	0,6	0,6	0,5	0,5
D2	2,6	2,6	2,6	2,5	2,6	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,3	2,2
D3	4,8	4,7	4,7	4,7	4,8	4,9	4,7	4,7	4,6	4,6	4,4	4,3
D4	6,8	6,7	6,7	6,8	6,8	6,8	6,8	6,7	6,7	6,6	6,5	6,3
D5	8,5	8,4	8,4	8,4	8,4	8,4	8,4	8,3	8,4	8,3	8,2	8,2
D6	10,0	9,9	10,0	9,9	9,9	9,9	9,9	9,9	9,9	9,9	9,8	9,9
D7	11,6	11,6	11,7	11,6	11,5	11,6	11,6	11,6	11,6	11,7	11,7	11,7
D8	13,5	13,6	13,6	13,6	13,6	13,5	13,6	13,7	13,7	13,7	13,9	14,0
D9	16,0	16,0	16,1	16,1	16,1	16,1	16,3	16,3	16,3	16,3	16,6	16,7
D10	25,5	25,3	25,5	25,6	25,7	25,5	25,8	25,6	25,7	25,8	26,0	26,3



Horrela, 2014. urtean soldatarik baxuenak jasotzen dituztenen %10aren soldatak (D1 dezila), gipuzkoar guztiek jasotako soldaten %0,5 metatu dute. Aldiz, soldatarik altuenak jaso dituztenek (D10 dezila), soldata osoen %26,3a metatu dute.

2003-2008 epealdian banaketa modu antzekoan mantentzen da, baina 2008-2014 epealdian sei lehenengo taldeak, hau da, soldata txikienak jasotzen dituztenak, jaitsi egiten dira portzentualki eta lau azkeneko taldeak igo. Gainera gehien jaisten den taldea soldata txikienak dituztenena da (D1). Aldiz, gehiena igotzen diren dezilak D8, D9 eta D10 dira.

Taula 5. Bariazio portzentuala dezilen arabera

	2003/2008	2008/2014	2003/2014
D1	-1,2	-26,8	-27,7
D2	0,2	-17,6	-17,4
D3	0,8	-12,4	-11,7
D4	0,2	-7,6	-7,4
D5	-0,6	-2,9	-3,5
D6	-0,7	-0,5	-1,2
D7	-0,4	1,5	1,1
D8	0,1	3,2	3,3
D9	0,3	4,0	4,4
D10	0,2	3,2	3,4

Medianari dagokionez, dezila guztietan nahiko modu berdinean igo da 2003-2008 epealdian. Baina 2008-2014 epealdian bost lehenengo dezilen mediana jaitsi egiten da, eta, aldiz, bost azkeneko dezilena igo egiten da. Gainera, gehien jaisten dena soldata txikienak dituztenena da (D1). Aldiz, D9 dezilaren mediana da gehien igotzen dena.

Taula 6. Medianaren balioa dezilen arabera

	2003	2006	2008	2009	2012	2013	2014
D1	1.092	1.167	1.393	1.322	1.226	1.083	1.021
D2	5.138	5.396	6.228	5.854	5.961	5.605	5.286
D3	9.380	10.239	11.563	11.214	10.999	10.634	10.296
D4	13.333	14.649	16.346	16.253	16.051	15.799	15.380
D5	16.437	18.153	19.987	20.094	20.123	19.976	19.834
D6	19.389	21.429	23.554	23.648	23.858	23.935	23.899
D7	22.541	25.010	27.491	27.639	28.071	28.499	28.465
D8	26.221	29.267	32.166	32.530	32.984	33.787	33.861
D9	30.953	34.529	38.031	38.854	38.939	40.285	40.447
D10	43.043	47.949	52.632	53.229	53.682	54.321	54.587



Taula 7. Medianaren bariazio portzentuala dezilen arabera

	2003/2008	2008/2014	2003/2014
D1	27,6	-26,7	-6,5
D2	21,2	-15,1	2,9
D3	23,3	-11,0	9,8
D4	22,6	-5,9	15,3
D5	21,6	-0,8	20,7
D6	21,5	1,5	23,3
D7	22,0	3,5	26,3
D8	22,7	5,3	29,1
D9	22,9	6,4	30,7
D10	22,3	3,7	26,8

Soldata banaketaren berdintasuna/ezberdintasuna aztertzeko beste modu bat, dezilen arteko ratioen bidez da.

- Soldaten D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko dezilan (soldata txikienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2014an 54,8ko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %10ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %10ak jasotzen dituztenak baino 54,8 aldiz handiagoak direla.
- Soldaten S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2014an 16,1eko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %20ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %20ak jasotzen dituztenak baino 16,1 aldiz handiagoak direla.

Taula 8. Dezilen arteko ratioak (%)

	2003	2008	2014	% bariazioa		
				2003/2008	2008/2014	2003/2014
Soldatak D10/D1	38,3	38,9	54,8	1,4	40,9	42,9
Soldatak S80/S20	12,5	12,6	16,1	0,3	28,4	28,8
Mediana D10/D1	39,4	37,8	53,5	-4,1	41,5	35,6
Mediana S80/S20	11,5	11,3	15,3	-2,0	36,3	33,6



- Medianaren D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko dezilan (soldata txikienak) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2014an 53,5eko ratio batek esan nahi du, D10 dezilaren (soldata handieneko populazioaren %10a) mediana, D1 dezilaren (soldata txikieneko populazioaren %10a) mediana baino 54,5 aldiz handiagoa dela.
- Medianaren S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi dezilatan (D9+D10) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko bi dezilatan (D1+D2) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2014an 15,3ko ratio batek esan nahi du, goiko dezilen (soldata handieneko populazioaren %20a) mediana, beheko dezilen (soldata txikieneko populazioaren %20a) mediana baino 15,3 aldiz handiagoa dela.

2003-2008 epealdian soldaten arteko ratioak pixka bat handitu ziren (+%1,4 D10/D1 eta +%0,3 S80/S20), eta, aldiz, medianaren erlazioak jaitsi egin ziren (-%4,1 D10/D1 eta -%2,0 S80/S20).

2008-2014 epealdian ratio guztiak modu garrantzitsuan handitu ziren. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa %40,9 handitu zen eta medianarena %41,5. S80/S20 erlazioan, igoera %28,4 eta %36,3 izan zen, hurrenez hurren.

Aldaketa horiek direla-eta, aztertutako epealdi osoan (2003-2014) D10/D1 soldaten ratioa %42,9 handitu da eta S80/S20 kasuan %28,8. Medianaren ratioetan, igoerak %35,6 eta %33,6 izan dira, hurrenez hurren.


3.1. Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitopenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2014. urteko 295.515 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 10.213ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,4ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %46,0 emakumezkoak dira, eta beste %54,0 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %38,9 jasotzen dute, eta gizonezkoek %61,1.




Grafikoa 4 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2014



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 20.846 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 27.894 eurokoa.

Grafikoa 5 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2014



Azkeneko hamabi urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2003an 101.854 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2014an kopuru hori 131.354ra igo da, hau da, %29,0 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 151.154tik 153.948ra pasa dira (+%1,8). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko kopurua 2009an eta 2013an bakarrik jaitsi zen; aldiz, krisia hasi zenetik gizonezko soldatapeko kopurua etengabe jaitsi da 2013. urte arte (2014an %1,1 igo da).



Taula 9. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	101.854		151.154	
2004	110.436	8,4	157.699	4,3
2005	120.314	8,9	166.324	5,5
2006	124.732	3,7	168.394	1,2
2007	129.586	3,9	171.048	1,6
2008	131.331	1,3	169.995	-0,6
2009	129.562	-1,3	163.333	-3,9
2010	129.579	0,0	159.900	-2,1
2011	129.939	0,3	157.491	-1,5
2012	130.619	0,5	157.298	-0,1
2013	128.699	-1,5	152.262	-3,2
2014	131.354	2,1	153.948	1,1
2003/2014		29,0		1,8

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 5,7 puntu igo da azken hamabi urteetan: 2003an soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %40,3 zen emakumezkoa, eta 2014an, lehen aipatutako %46,0ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantziko bide egin dute: %59,7 izatetik %54,0 izatera pasa dira.

Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2003an emakumezkoek jasotako soldatak 1.673 milioi euro izan ziren bitartean, 2014an 2.738 milioi euro izan dira; hau da, %63,7 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2012 eta 2013 urteetan izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

Taula 10. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	1.673		3.539	
2004	1.849	10,5	3.769	6,5
2005	2.029	9,7	4.051	7,5
2006	2.200	8,5	4.265	5,3
2007	2.421	10,0	4.529	6,2
2008	2.617	8,1	4.716	4,1
2009	2.672	2,1	4.478	-5,0
2010	2.699	1,0	4.402	-1,7
2011	2.731	1,2	4.431	0,7
2012	2.706	-0,9	4.346	-1,9
2013	2.701	-0,2	4.239	-2,5
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2003/2014		63,7		21,3

Gizonezkoak jasotako soldatak %21,3 igo dira hamabi urte hauetan: 3.539 milioi eurotik 4.294 eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz,



emakumezkoen soldaten pisua 6,8 puntu igo da hamabi urte hauetan: 2003ko 32,1etik lehen aipatutako %38,9ra. Eta gizonezkoena %67,9tik %61,1era pasa da.

Taula 11. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	16.422		23.415	
2004	16.739	1,9	23.897	2,1
2005	16.862	0,7	24.357	1,9
2006	17.641	4,6	25.328	4,0
2007	18.685	5,9	26.481	4,6
2008	19.927	6,6	27.740	4,8
2009	20.624	3,5	27.419	-1,2
2010	20.829	1,0	27.527	0,4
2011	21.014	0,9	28.138	2,2
2012	20.713	-1,4	27.627	-1,8
2013	20.990	1,3	27.840	0,8
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2003/2014		26,9		19,1


2003tik 2014ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %26,9 igo da: 16.422 eurotik 20.846 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %19,1 igo da: 23.415 eurotik 27.894 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamabi urte hauetan:

- 2003. urtean 6.993 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %29,9 txikiagoa zela.
- 2004–2008 epealdian arraila urtero handitu zen; zenbatekoetan alderik handiena azken urte horretan izan zuen: 7.812 euro.
- Hortik aurrera, eta 2011. eta 2014. urteak izan ezik, arraila gutxitu egin zen. Azken urte honetan 7.048 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handirik ez egon 2003ko zenbatekoarekin (6.993 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 4,6 puntu jaitsi da: 2003ko %29,9tik 2014ko %25,3ra.



Grafikoa 6- Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)



3.2. Soldatak nazionalitatearen arabera

Nazionalitatea definitzen da herritar bat eta Estatu baten arteko lege harreman berezi gisa; horrela, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo M atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Horrela, Gipuzkoan bizi diren soldata jasotzailearen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2014an %94,9 dira bertakoak eta beste %5,1 atzerritarrak.

Taula 12. Soldatapekoen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2003	278.797		5.392	
2004	283.118	1,6	6.456	19,7
2005	287.966	1,7	9.337	44,6
2006	292.443	1,6	11.756	25,9
2007	298.258	2,0	14.603	24,2
2008	295.826	-0,8	16.433	12,5
2009	285.932	-3,3	16.192	-1,5
2010	281.744	-1,5	15.763	-2,7
2011	279.358	-0,8	16.053	1,8
2012	283.325	1,4	16.304	1,6
2013	277.800	-2,0	14.967	-8,2
2014	280.398	0,9	15.117	1,0
2003/2014		0,6		180,4



Dena den azken hamabi urteetan atzerritarren partaidetza era garrantzitsuan handitu da: 2003an 5.392 pertsona ziren atzerritarrak, eta 2014an 15.117 dira; hau da, %180,4 gehiago. Igoera hori gehienbat 2003-2008 epealdian eman zen; ondoren, eta krisiaren eraginez kopurua mantendu egin da, eta 2013 jaitsiera nabarmena eman da.

Atzerritarrek jasotako soldatak ere nabarmen handitu dira azken hamabi urteetan: 2003an 62 milioi euro jaso zituzten, eta 2014an, berriz, 195 milioi euro (+%213,9). Kasu honetan ere, igoera esanguratsuena 2003-2008 epealdian metatzen da. Gero, krisiaren ondorioz, eta 2011ti aurrera jaisten hasten da.

**Taula 13. Soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera
(milioi eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2003	5.487		62	
2004	5.770	5,2	74	19,8
2005	6.114	6,0	101	36,0
2006	6.472	5,9	134	32,1
2007	6.933	7,1	174	30,1
2008	7.269	4,9	210	20,6
2009	7.079	-2,6	205	-2,0
2010	7.017	-0,9	206	0,2
2011	7.070	0,8	215	4,4
2012	7.008	-0,9	211	-1,9
2013	6.931	-1,1	192	-9,1
2014	6.978	0,7	195	1,7
2003/2014		27,2		213,9

Dena den, atzerritarrek izan duten bilakaera ikusgarri horrek ez du eragin garbirik jasotako batez besteko soldatan: aztertutako hamabi urteetan %12,0 igo da (11.519 eurotik 12.897 eurora), bertakoen batez besteko soldata %26,5 igo den bitartean (19.680 eurotik 24.887 eurora).


Bi taldeen arteko arraila 2014. urtean 11.991 eurokoa izan da; horrek esan nahi du atzerritarren soldata bertakoena baino %48,2 txikiagoa dela. Arraila hori azken hamabi urteetan ia-ia etengabe handitu egin da.



Taula 14. Batez besteko soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2003	19.680		11.519	
2004	20.379	3,6	11.523	0,0
2005	21.230	4,2	10.837	-5,9
2006	22.132	4,2	11.368	4,9
2007	23.244	5,0	11.903	4,7
2008	24.572	5,7	12.758	7,2
2009	24.758	0,8	12.691	-0,5
2010	24.905	0,6	13.062	2,9
2011	25.306	1,6	13.394	2,5
2012	24.734	-2,3	12.936	-3,4
2013	24.949	0,9	12.809	-1,0
2014	24.887	-0,2	12.897	0,7
2003/2014		26,5		12,0

Grafikoa 7- Nazionalitateen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)



3.3. Soldatak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2014. urteko 295.515 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 8.685ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,9ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.



Normala den bezala, jasotzaile kopuruaren gehiengoak (%76,9) 26-55 urte tartean kokatzen da. Oso gutxi dira 18 urtetik beherakoak (%0,1), eta 19-25 tartean daudenak kopuru osoaren %5,7 dira (16.232 pertsona). 56 eta 65 urte bitartean 46.064 soldatapeko daude (guztien %16,1); eta 65 urtetik gora 3.861 pertsona daude (%1,3).

Taula 15. Soldatak adin tarteen arabera - 2014

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<18	372	0,1	1.133.583	0,0	3.047
19-25	16.232	5,7	113.592.037	1,6	6.998
26-35	57.902	20,2	1.126.026.158	15,9	19.447
36-45	87.055	30,4	2.195.011.567	31,0	25.214
46-55	75.344	26,3	2.161.534.306	30,5	28.689
56-65	46.064	16,1	1.409.886.721	19,9	30.607
> 65	3.861	1,3	69.191.444	1,0	17.921
Guztira	286.830	100,0	7.076.375.815	100,0	24.671

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: %77,4a metatzen dute 26 eta 55 urte bitartekoak; gazteenak (25 urtetik beherakoak) soldata osoen %1,6 jasotzen dute, eta zaharrenak (55 urtetik gorakoak) %20,9a.

Dena den, adierazgarria da nola handitzen den batez besteko soldata adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, zenbatekorik altuena 56-65 urteko soldatapekoak lortzen dute: 30.607 euro.

Tarteen arabera bi salto esanguratsu ikusten dira: 19-25 tartetik 26-35 tartera batez bestekoa 12.449 eurotan handitzen da (6.998 eurotik 19.447 eurora); eta 56-65 tartetik 65 urte baino gehiagoko tartera batez bestekoa 12.686 eurotan jaisten da (30.607 eurotik 17.921 eurora).

3.4. Soldatak LGSaren tarteen arabera

Jasotako soldata tartean banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2014. urtean 9.034,2 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, hiru tarte nabarmentzen dira:

- LGSren 0 eta 0,5 arteko soldata jasotzaile guztien %13,4k jasotzen dute (39.509 pertsona).
- LGSren 2 eta 2,5 arteko soldata jasotzaile guztien %11,1ek jasotzen dute (32.666 pertsona).



- LGSren 2,5 eta 3 arteko soldata jasotzaile guztien %10,3k jasotzen dute (30.332 pertsona).

Jasotzaile guztien erdiak baino gehiagok (%52,0) LGSren 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 22.586 euro baino gutxiago.

Taula 16. Soldatak LGSren tarteen arabera - 2014

Errenta tartea (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	39.509	13,4	71.451.880	1,0	1.808
0,5 - 1	26.632	9,0	179.000.141	2,5	6.721
1 - 1,5	26.844	9,1	302.733.431	4,2	11.278
1,5 - 2	27.657	9,4	439.762.864	6,1	15.901
2 - 2,5	32.666	11,1	665.103.544	9,3	20.361
2,5 - 3	30.332	10,3	751.837.883	10,5	24.787
3 - 3,5	26.263	8,9	769.584.695	10,7	29.303
3,5 - 4	22.729	7,7	768.596.300	10,7	33.816
4 - 4,5	19.344	6,5	741.511.538	10,3	38.333
4,5 - 5	14.433	4,9	616.158.382	8,6	42.691
5 - 7,5	21.774	7,4	1.151.134.854	16,0	52.867
7,5 - 10	4.908	1,7	375.344.274	5,2	76.476
> 10	2.424	0,8	341.062.250	4,8	140.702
Guztira	295.515	100,0	7.173.282.038	100,0	24.274

Zenbatekoak eurotan

(*) 2014an Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren balio 9.034,2 eurokoa da

Soldatetan erdiko mailatan metatzen da zenbatekorik gehiena, LGSren 2 eta 7,5 bitartean; eta horien artean aipatzekoa da LGS 5 eta 7,5 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %16,0 metatzen dutela, kopuruan %7,4 direnean.

3.5. Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik

Txostenaren sarreran aipatu dugun bezala, soldaten analisia bi ikuspegitik egiten da:

- Alde batetik, soldata jasotzen duen pertsonaren bizilekuan oinarritutakoa; orain arte aztertu ditugu Gipuzkoan bizi diren pertsonen datuak, nahiz eta horiek Gipuzkoatik kanpo lan egin.
- Beste alde batetik, puntu honetan aztertuko duguna da Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileak ordaindutako soldatak, nahiz eta jasotzailea Gipuzkoatik kanpo helbideratua egon.



3.5.1. Izaera juridikoaren arabera

2014an 26.729 soldata ordaintzaile daude Gipuzkoan. Gehiengo nagusia sozietateak osatzen dute (%57,8), eta horien artean erantzukizun mugatutako sozietateak nabarmentzen dira (ordaintzaile guztien ia- ia erdia, %47,0). Bigarren talde nagusia pertsona fisikoak dira (%29,6).

Jasotzaileei dagokionez, %35,3ak erantzukizun mugatutako sozietateetan lan egiteagatik jasotzen dute soldata; %24,6ak sozietate anonimoetan egiteagatik; administrazio publikoetan jasotzaile guztien %13,9k egin du lan; eta kooperatibetan %10,6k.

Taula 17. Soldatak izaera juridikoaren arabera - 2014

Izaera juridikoa	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Enpresa pertsonalak	9.419	35,2	22.784	7,9	254.360.923	3,6	11.164
- Pertsona fisikoak	7.909	29,6	18.079	6,3	198.287.654	2,8	10.968
- Errenta egozpen erregimenekoak	1.510	5,6	4.705	1,6	56.073.269	0,8	11.918
Sozietateak	15.442	57,8	205.579	71,2	4.961.823.620	70,9	24.136
- Sozietate anonimoak	2.063	7,7	71.135	24,6	2.033.101.431	29,1	28.581
- Erantzukizun mugatutako sozietateak	12.552	47,0	101.959	35,3	2.142.429.873	30,6	21.013
- Kooperatibak	634	2,4	30.653	10,6	735.866.926	10,5	24.006
- Bestelakoak	193	0,7	1.832	0,6	50.425.391	0,7	27.530
Administrazio publikoak	189	0,7	40.249	13,9	1.353.000.345	19,3	33.615
Irabazi asmorik gabeko entitateak	1.679	6,3	20.264	7,0	425.221.636	6,1	20.984
Guztira	26.729	100,0	288.876	100,0	6.994.406.525	100,0	24.212

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte, guztiaren %30,6; sozietate anonimoak ere antzeko portzentajea metatzen dute (%29,1); administrazio publikoek soldaten %19,3 ordaintzen dituzte; eta kooperatibak %10,5.

Soldataren batez besteko handiena administrazio publikoetan lan egiten dutenak jasotzen dute: 33.615 euro. Sozietate anonimoetako langileen batez bestekoa 28.581 eurokoa da, eta kooperatibetakoena 24.006 euro. Zenbatekorik txikienak enpresa pertsonaletan lan egiten dutenena da: 11.164 euro.



Beraz, eta laburtuz:

- Ordaintzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateak dira.
- Jasotzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateetan egiten dute lan.
- Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte, baina sozietate anonimoen datuak ere antzekoak dira.
- Batez besteko soldatarik handienak administrazio publikoetako langileak jasotzen dituzte.

Ondorengo tauletan azken hamabi urteetan 5 talde nagusiek izan duten bilakaera aztertzen da.

Taula 18. Jasotzaileen bilakaera izaera juridikoaren arabera

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2003	24.684		95.954		85.541		29.775		34.281	
2004	24.293	-1,6	94.032	-2,0	90.351	5,6	30.480	2,4	34.765	1,4
2005	24.737	1,8	94.186	0,2	96.298	6,6	30.943	1,5	35.736	2,8
2006	25.044	1,2	94.172	0,0	101.494	5,4	31.205	0,8	36.047	0,9
2007	24.349	-2,8	94.155	0,0	107.790	6,2	31.808	1,9	37.267	3,4
2008	24.045	-1,2	92.883	-1,4	110.611	2,6	31.956	0,5	38.769	4,0
2009	23.386	-2,7	86.665	-6,7	106.368	-3,8	29.759	-6,9	40.262	3,9
2010	23.321	-0,3	83.273	-3,9	104.591	-1,7	30.082	1,1	41.300	2,6
2011	22.754	-2,4	79.677	-4,3	102.736	-1,8	31.353	4,2	40.473	-2,0
2012	22.347	-1,8	76.937	-3,4	100.601	-2,1	31.117	-0,8	39.823	-1,6
2013	22.171	-0,8	71.666	-6,9	98.412	-2,2	30.935	-0,6	39.386	-1,1
2014	22.784	2,8	71.135	-0,7	101.959	3,6	30.653	-0,9	40.249	2,2
2003/2014	-1.900	-7,7	-24.819	-25,9	16.418	19,2	878	2,9	5.968	17,4

Langile kopuruari dagokionez:

- Enpresa pertsonalak ia-ia etengabe galdu ditu langileak. 2003. urteko 24.684 langiletik 22.784 langilera pasa da hamabi urteetan (-%7,7).
- Sozietate anonimoak izan dira langile gehien galdu dutenak. Krisi aurretik kopurua nahiko egonkorra zen, baina 2008tik aurrera galera nabarmenak dituzte, eta aztertutako hamabi urteko epealdian langile kopurua %25,9 jaitsi da (24.819 jasotzaile gutxiago).



Taula 19. Soldaten bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2003	247.010.966		2.115.918.618		1.353.896.809		583.340.290		875.054.208	
2004	254.271.111	2,9	2.141.386.912	1,2	1.490.967.230	10,1	632.448.626	8,4	915.911.639	4,7
2005	265.753.049	4,5	2.204.381.555	2,9	1.667.759.172	11,9	670.959.250	6,1	983.526.118	7,4
2006	282.983.082	6,5	2.255.359.057	2,3	1.870.777.802	12,2	700.607.124	4,4	1.047.210.146	6,5
2007	293.863.411	3,8	2.357.160.676	4,5	2.086.071.343	11,5	738.670.097	5,4	1.131.994.244	8,1
2008	303.235.195	3,2	2.440.961.478	3,6	2.249.746.273	7,8	752.379.091	1,9	1.271.764.997	12,3
2009	289.805.929	-4,4	2.277.261.625	-6,7	2.152.960.792	-4,3	712.848.499	-5,3	1.363.811.338	7,2
2010	287.132.577	-0,9	2.197.987.978	-3,5	2.130.928.949	-1,0	711.834.469	-0,1	1.369.476.872	0,4
2011	281.811.683	-1,9	2.203.368.942	0,2	2.157.720.191	1,3	754.476.241	6,0	1.356.033.894	-1,0
2012	270.617.825	-4,0	2.165.315.674	-1,7	2.099.720.131	-2,7	743.527.645	-1,5	1.279.309.455	-5,7
2013	255.498.865	-5,6	2.062.480.822	-4,7	2.067.939.902	-1,5	733.482.727	-1,4	1.341.122.222	4,8
2014	254.360.923	-0,4	2.033.101.431	-1,4	2.142.429.873	3,6	735.866.926	0,3	1.353.000.345	0,9
2003/2014	7.349.957	3,0	-82.817.187	-3,9	788.533.064	58,2	152.526.636	26,1	477.946.137	54,6

- Erantzukizun mugatutako sozietateak dira bilakaera hobea izan dutenak. Hamabi urteko epealdiko lehen zatian langile kopurua asko hazi zen: 2008an lortu zuten daturik altuena (110.611 langile), 2003an baino 25.000 gehiago. Gero, krisiarekin bilakaera negatiboa erakusten dute; halere, hamabi urteetan 16.418 langile gehiago dituzte (+%19,2).
- Kooperatibetan lan egiten duten pertsona kopurua %2,9 igo da azken hamabi urteetan. 2009ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko beherakadak izan ezik, beste urte guztietan igoerak eman dira.
- 2003tik 2014ra administrazio publikoetako langile kopurua %17,4 handitu da. Dena den, 2011, 2012 eta 2013 urteetan beherakadak eman dira, -%2,0 2011n, -%1,6 2012an eta -%1,1 2013an.

Azken hamabi urteetan ordaindutako soldatei dagokionez, aztertutako lau taldek bilakaera positiboa erakusten dute eta batek bilakaera negatiboa:

- Enpresa pertsonalak %3,0ko igoera izan dute. 2008 arte igoerak eman ziren urtez urte; baina hortik aurrera, krisiaren eraginez, beherakadak eman dira.
- Sozietate anonimoak bilakaera negatiboa izan dute eta ordaindutako soldata osoak %3,9 jaitsi dira. Hemen ere 2009an hasten dira beherakadak.



- Erantzukizun mugatutako sozietateak ordaindutako soldata osoek %10etik gorako igoerak izan zituzten 2003-2007 epealdian. 2008an igoera zertxobait txikiagoa izan zen (+%7,8); eta ondoren, krisiaren eraginez beherakadak eman dira, 2011eta 2014 izan ezik. Guztira, hamabi urteetan %58,2 igo dira.
- Kooperatibak ordaindutako soldata osoen bilakaera aurreko taldeen antzekoa da: igoerak 2008 arte, eta hortik aurrera beherakadak. Salbuespenak 2011. urtea eta 2014. urtea dira (+%6,0 eta +%0,3). Guztira, soldatak %26,1 igo dira.
- Administrazio publikoetan soldaten doiketa beranduago heldu da: 2010. urte arte igoerak eman dira; 2011n jaitsiera txiki bat gertatzen da (-%1,0); eta jaitsierarik handiena 2012an ematen da (-%5,7). 2013an berriro %4,8 igozten dira soldatak (2012ko jaitsieran zer ikusia izan zuen abenduko ordainketa berezia kendu izanak). Guztira hamabi urteko epealdi honetan administrazio publikoek ordaindutako soldata osoak %54,6 handitu dira.

Dena den, azken hamabi urteetan soldaten batez bestekoaren portaeran alde batzuk nabari dira. Gehien igo dena erantzukizun mugatutako sozietateetakoak izan da: +%32,8. Ondoren administrazio publikoetan lan egiten dutenen soldatak datoz (+%31,7), eta gero sozietate anonimoetako langileak (+%29,6). Kooperatibatako langileen soldatak %22,5 igo dira 2003tik 2014ra, eta azkenik, enpresa pertsonaletan lan egiten dutenen batez besteko soldata %11,6 handitu da.

Kontuan izanda epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %27,8 igo dela, aldeak nabariak dira ordaintzaile motaren arabera. Horrela, hamabi urteko epealdi osoan erantzukizun mugatutako sozietateetako langileak izan dira eresketa ahalmena gehien irabazi dutenak (5,0 puntu); sozietate anonimoetakoak 1,8 puntu irabazi dituzte; administrazio publikoetako langileen batez besteko soldata ia-ia KPI pare igo da 2012. urtera arte baina 2014 eresketa ahalmen handia irabazi dute (3,9 puntu); eta kooperatibatako eta enpresa pertsonaletako langileak, berriz, eresketa ahalmena galdu dute, %5,3 eta %16,2, hurrenez hurren.



Taula 20. Soldaten batez bestekoaren bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa personalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2003	10.007		22.051		15.827		19.592		25.526	
2004	10.467	4,6	22.773	3,3	16.502	4,3	20.750	5,9	26.346	3,2
2005	10.743	2,6	23.404	2,8	17.319	4,9	21.684	4,5	27.522	4,5
2006	11.299	5,2	23.949	2,3	18.432	6,4	22.452	3,5	29.051	5,6
2007	12.069	6,8	25.035	4,5	19.353	5,0	23.223	3,4	30.375	4,6
2008	12.611	4,5	26.280	5,0	20.339	5,1	23.544	1,4	32.804	8,0
2009	12.392	-1,7	26.277	0,0	20.241	-0,5	23.954	1,7	33.873	3,3
2010	12.312	-0,6	26.395	0,5	20.374	0,7	23.663	-1,2	33.159	-2,1
2011	12.385	0,6	27.654	4,8	21.002	3,1	24.064	1,7	33.505	1,0
2012	12.110	-2,2	28.144	1,8	20.872	-0,6	23.894	-0,7	32.125	-4,1
2013	11.524	-4,8	28.779	2,3	21.013	0,7	23.710	-0,8	34.051	6,0
2014	11.164	-3,1	28.581	-0,7	21.013	0,0	24.006	1,2	33.616	-1,3
2003/2014	1.157	11,6	6.530	29,6	5.185	32,8	4.415	22,5	8.090	31,7

3.5.2. Langile kopuruaren arabera

Soldaten ordaintzaileak dituen langile kopuruaren arabera, gehiengo nagusiak (%62,3) langile 1 eta 3 bitartean ditu. Hurrengo tartean, 4-9 langile, ordaintzaile guztien %21,5a, eta 10-19 langile bitartean %8,3. Beraz, Gipuzkoako ordaintzaile guztien %92,1ak 20 langile baino gutxiago ditu.

Jasotzaile kopuruaren banaketa askoz orekatuagoa da. Dena den, kopururik handiena 500 langile baino gehiago dituzten 45 ordaintzaileetan metatzen da: 68.345 (%23,7).

Batez beste, Gipuzkoako ordaintzaile bakoitzak 11 langile ditu.

Ordaindutako soldatek langile kopuruaren antzeko banaketa dute. Hemen ere 500 langiletik gorako ordaintzaileak nagusitzen dira: soldata guztien %29,2 metatzen dute.



Taula 21. Soldatak langile kopuruaren arabera - 2014

Tamaina (langile kopurua)	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
1-3	16.656	62,3	26.658	9,2	452.424.040	6,5	16.971
4-9	5.747	21,5	34.937	12,1	671.161.089	9,6	19.211
10-19	2.226	8,3	30.701	10,6	645.982.598	9,2	21.041
20-49	1.351	5,1	40.671	14,1	922.738.243	13,2	22.688
50-99	407	1,5	28.659	9,9	708.417.670	10,1	24.719
100 - 249	233	0,9	37.213	12,9	1.025.110.437	14,7	27.547
250- 499	64	0,2	21.693	7,5	526.619.299	7,5	24.276
>=500	45	0,2	68.345	23,7	2.041.953.148	29,2	29.877
Guztira	26.729	100,0	288.876	100,0	6.994.406.525	100,0	24.212

Zenbatekoak eurotan

Batez bestekoari dagokionez, ordaintzailearen tamaina zenbat eta handiago izan, orduan eta zenbateko altuagoa. 500 langiletik gorako ordaintzaileak soldata moduan 29.877 euro ordaintzen dituzte batez beste, eta 1-3 langile bitartean dituztenek, berriz, 16.971 euro ordaintzen dute.

3.5.3. Sektoreen arabera

Ordaintzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, jarduera sektorea. Horrela, 2014. urteko 26.729 ordaintzailetik ez dugu ezagutzen 1.463ren jarduera sektorea; dena den, %5,4ko hutsune hori txikiagoa da jasotzaile kopurua aztertzerakoan (%3,8) eta ordaindutako soldatetan (%2,9). Beraz, hutsune horiek ez diote adierazgarritasunik kentzen lortutako emaitzei.

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean dago Gipuzkoako ordaintzaile kopururik handiena: 8.681 (%34,4). Bigarren lekuan Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonalen sektorea dago (%18,6), eta ondoren Enpresei eginiko zerbitzuak (%16,2). Hirurak ere zerbitzuei lotutako sektoreak dira. Industria sektorean, berriz, 3.073 ordaintzaile daude (guztien %12,2), eta eraikuntzan 2.890 (%11,4).

Baina banaketa hori aldatu egiten da soldata jasotzaile kopurua aztertzen badugu; izan ere, gizarte zerbitzuen sektorean dago kopururik handiena: 66.850 soldatapeko, hau da, guztien %24,1. Industrian 63.885 pertsonak (%23,0) jasotzen dute soldata, eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean 56.938 pertsonak (%20,5).



Taula 22. Soldatak sektoreen arabera - 2014

Sektoreak	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	36	0,1	145	0,1	2.510.587	0,0	17.353
Energia eta ura	97	0,4	2.954	1,1	88.271.911	1,3	29.879
Industria	3.073	12,2	63.885	23,0	1.880.075.194	27,7	29.429
Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	2.890	11,4	15.931	5,7	363.647.798	5,4	22.826
Merkataritza, garraioak eta konponketak	8.681	34,4	56.938	20,5	1.185.029.592	17,5	20.812
Komunikazioak eta informazioa	18	0,1	176	0,1	6.029.057	0,1	34.199
Banka eta aseguruak	196	0,8	5.644	2,0	246.860.218	3,6	43.739
Enpresei eginiko zerbitzuak	4.084	16,2	34.442	12,4	682.138.324	10,0	19.806
Gizarte zerbitzuak	1.490	5,9	66.850	24,1	1.934.707.520	28,5	28.941
Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	4.701	18,6	30.817	11,1	400.996.254	5,9	13.012
Guztira	25.266	100,0	277.783	100,0	6.790.266.455	100,0	24.445

Zenbatekoak eurotan

Soldata zenbatekorik handiena gizarte zerbitzuetako jarduerak ordaintzen du (1.935 milioi euro; %28,5); Industria sektoreak egiten dituztenek 1.880 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %27,7); eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko ordaintzaileak 1.185 milioi euro (%17,5).

Batez bestekorik handiena banka eta aseguru sektore ordaintzaileak ordaintzen dute: 43.739 euro bertan lan egiten duen 5.644 pertsonako. Ondoren Komunikazioak eta informazioa sektorea dator: 34.199 euro; baina hor, 176 pertsonak bakarrik egiten dute lan. Industria sektoreko ordaintzaileak 29.429 euro ordaintzen dute batez beste.

Gipuzkoan lan-zentroa duten Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektoreko enpresek dituzten jasotzaile kopurua %7,4 jaitsi da 2003tik. Dena den, esan beharra dago balio absolutuetan oso soldatapeko gutxi direla sektore horretan lan egiten dutenak.

Azken hamabi urteetan Industria sektoreko ordaintzaileak 22.167 soldatapeko galdu dituzte; 2003an 86.052 pertsonak egiten zuten lan, eta 2014an 63.885 pertsonak. Taulan ikusten denez, beherakada esanguratsuenak 2009tik aurrera eman dira.

Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan langile kopururik altuena 2008an lortu zen: 25.096 langile. Hortik aurrera, beherakadak izan ditu, eta 2012an jaitsiera handiena eman zen (-%9,1). 2003tik jaitsiera %24,6koa izan da.



Taula 23. Jasotzaileen bilakaera sektoreen arabera

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza		Energia eta ura		Industria		Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa		Merkataritza, garraioak eta konponketak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2003	157		2.702		86.052		21.128		56.586	
2004	161	3,0	2.690	-0,4	86.395	0,4	21.411	1,3	57.888	2,3
2005	152	-5,7	2.706	0,6	85.811	-0,7	22.650	5,8	59.813	3,3
2006	153	0,6	2.739	1,2	84.658	-1,3	23.313	2,9	61.740	3,2
2007	137	-10,4	2.895	5,7	85.253	0,7	24.123	3,5	63.096	2,2
2008	155	13,2	2.956	2,1	84.242	-1,2	25.096	4,0	63.190	0,1
2009	134	-13,4	2.995	1,3	75.925	-9,9	23.748	-5,4	60.249	-4,7
2010	138	2,5	3.082	2,9	71.865	-5,3	22.275	-6,2	59.349	-1,5
2011	133	-3,1	3.110	0,9	70.243	-2,3	20.381	-8,5	58.348	-1,7
2012	118	-11,5	3.005	-3,4	68.048	-3,1	18.519	-9,1	56.750	-2,7
2013	122	3,4	2.885	-4,0	64.354	-5,4	16.938	-8,5	55.760	-1,7
2014	145	18,9	2.954	2,4	63.885	-0,7	15.931	-5,9	56.938	2,1
2003/2014	-12	-7,4	252	9,3	-22.167	-25,8	-5.197	-24,6	352	0,6

Taula 23. jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa		Banka eta aseguruak		Enpresei eginiko zerbitzuak		Gizarte zerbitzuak		Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2003	216		6.835		33.732		51.013		19.693	
2004	217	0,4	6.656	-2,6	33.527	-0,6	53.183	4,3	20.675	5,0
2005	200	-7,8	6.690	0,5	34.793	3,8	55.695	4,7	22.645	9,5
2006	202	1,1	7.636	14,1	36.594	5,2	57.381	3,0	24.170	6,7
2007	198	-2,2	7.909	3,6	38.098	4,1	59.610	3,9	25.640	6,1
2008	204	3,4	8.193	3,6	38.756	1,7	61.789	3,7	27.328	6,6
2009	195	-4,5	8.539	4,2	36.553	-5,7	64.566	4,5	29.244	7,0
2010	187	-4,3	7.849	-8,1	36.889	0,9	66.841	3,5	29.809	1,9
2011	185	-1,1	7.539	-3,9	35.445	-3,9	66.845	0,0	30.385	1,9
2012	184	-0,3	7.201	-4,5	33.912	-4,3	66.040	-1,2	29.840	-1,8
2013	195	6,0	7.013	-2,6	33.664	-0,7	65.538	-0,8	29.668	-0,6
2014	176	-9,7	5.644(*)	-19,5(*)	34.442	2,3	66.850	2,0	30.817	3,9
2003/2014	-40	-18,5	-1.191 (*)	-17,4(*)	710	2,1	15.837	31,0	11.124	56,5

(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek 13,5 puntuko distorsio negatiboa sortzen du 2013/2014 konparaketan. Baldintza homogeneousan, bariazioa %6koa da, eta -%3,9koa 2003/2014 epealdian metatua.



Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko soldatapeko kopurua %0,6 igo da 2003ko datuekin alderatuta. Dena den, hemen ere krisiaren eragina nabarmentzen da, eta 2009tik aurrera jaitzierak ematen dira. 2014an joera aldatzen da eta jasotzaile kopurua igo egiten da (+%2,1).

Gipuzkoako Banka eta aseguru sektorean 5.644 jasotzaile daude 2014. urtean, orain dela 12 urte baino %17,4 gutxiago. Dena den, 2014an sartu den aldaketa kontuan izan behar da, taularen oinean dagoen oharrean esaten den bezala.

Enpresei eginiko zerbitzuetako soldatapeko kopurua ia-ia ez da aldatu hamabi urte hauetan: 2003ko 33.732tik 2014ko 34.442ra pasa da. Dena den, urteetan zehar gora beherak eman dira, eta 2008 arte irabazitako 5.000 soldatapeko, krisiarekin galdu egin dira. 2014. urtean hobekuntza motel bat eman da, eta %2,3 igo da.

Balio absolutuetan jasotzaile gehien irabazi duen sektorea Gizarte zerbitzuetakoa da: 2003an baino 15.837 soldatapeko gehiago (+%31,0). Azken lau urteetan izan ezik, beste guztietan %3 baino handiagoko igoerak izan ditu urtez urte.

Eta azkenik, Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonaletako sektorea da proportzionalki soldatapeko gehien irabazi duena azken hamabi urteetan: +%56,5. Beherakada bakarrak (-%1,8) 2012an eta (-%0,6) 2013an eman dira.

Zenbatekoei dagokionez berriz, Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako sektorean (-%8,4), industrian (-%1,8) eta eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan (-%7,5) izan ezik, beste guztietan 2014an ordaindutako soldata osoa 2003ko baino handiago da.

Igoerarik handiena Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonaletan eman da: +%95,4; eta igoerarik txikiena banka eta aseguruak sektorean, +%1,7. Dena den, 2014an sartu den aldaketa kontuan izan behar da, taularen oinean dagoen oharrean esaten den bezala.



Taula 24. Soldata osoen bilakaera sektoreen arabera (eurotan)

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	Bar. %	Energia eta ura	Bar. %	Industria	Bar. %	Eraikuntza eta jarduera inmobiliaria	Bar. %	Merkataritza, garraioak eta konponketak	Bar. %
2003	2.740.356		62.241.399		1.914.739.182		393.040.309		932.024.754	
2004	3.041.542	11,0	65.115.946	4,6	2.000.222.906	4,5	396.879.007	1,0	992.283.541	6,5
2005	2.883.891	-5,2	67.374.031	3,5	2.065.412.064	3,3	447.607.521	12,8	1.069.496.948	7,8
2006	3.264.110	13,2	69.301.421	2,9	2.123.595.746	2,8	492.283.394	10,0	1.152.406.935	7,8
2007	3.142.812	-3,7	74.666.506	7,7	2.234.664.788	5,2	533.457.607	8,4	1.241.982.852	7,8
2008	3.335.192	6,1	81.257.280	8,8	2.295.773.579	2,7	584.523.000	9,6	1.312.153.453	5,6
2009	2.213.414	-33,6	84.414.418	3,9	2.035.023.602	-11,4	557.065.261	-4,7	1.260.319.231	-4,0
2010	2.599.927	17,5	86.513.763	2,5	1.960.732.007	-3,7	514.271.570	-7,7	1.239.150.395	-1,7
2011	2.387.017	-8,2	89.565.691	3,5	2.017.502.653	2,9	478.018.522	-7,0	1.242.937.350	0,3
2012	2.300.152	-3,6	87.263.412	-2,6	1.958.213.859	-2,9	421.701.459	-11,8	1.190.393.780	-4,2
2013	2.263.535	-1,6	86.721.704	-0,6	1.870.225.059	-4,5	377.308.913	-10,5	1.169.891.221	-1,7
2014	2.510.587	10,9	88.271.911	1,8	1.880.075.194	0,5	363.647.798	-3,6	1.185.029.592	1,3
2003/2014	-229.769	-8,4	26.030.512	41,8	-34.663.988	-1,8	-29.392.511	-7,5	253.004.838	27,1

Taula 24. Jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa	Bar. %	Banka eta aseguruak	Bar. %	Enpresei eginiko zerbitzuak	Bar. %	Gizarte zerbitzuak	Bar. %	Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	Bar. %
2003	5.558.102		242.794.997		451.943.492		1.146.748.835		205.187.608	
2004	5.973.816	7,5	251.946.910	3,8	483.247.466	6,9	1.222.662.518	6,6	227.821.292	11,0
2005	6.250.566	4,6	257.690.802	2,3	526.808.688	9,0	1.329.193.229	8,7	247.327.688	8,6
2006	6.340.660	1,4	279.516.751	8,5	572.416.298	8,7	1.432.957.235	7,8	279.370.608	13,0
2007	6.640.928	4,7	298.724.594	6,9	633.717.811	10,7	1.562.578.318	9,0	313.219.203	12,1
2008	6.996.572	5,4	321.621.433	7,7	703.601.695	11,0	1.734.611.073	11,0	343.585.043	9,7
2009	6.593.413	-5,8	326.975.277	1,7	700.876.684	-0,4	1.871.436.009	7,9	365.367.263	6,3
2010	6.538.918	-0,8	311.412.591	-4,8	707.158.965	0,9	1.905.991.007	1,8	381.774.530	4,5
2011	6.707.339	2,6	299.836.745	-3,7	716.776.029	1,4	1.924.699.811	1,0	404.650.258	6,0
2012	6.538.207	-2,5	277.836.290	-7,3	694.807.412	-3,1	1.848.902.760	-3,9	382.599.630	-5,4
2013	6.441.485	-1,5	271.296.789	-2,4	684.354.595	-1,5	1.907.921.231	3,2	383.312.076	0,2
2014	6.029.057	-6,4	246.860.218(*)	-9,0(*)	682.138.324	-0,3	1.934.707.520	1,4	400.996.254	4,6
2003/2014	470.955	8,5	4.065.221(*)	1,7(*)	230.194.832	50,9	787.958.685	68,7	195.808.646	95,4

(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek distorsio negatiboa sortzen du, eta baldintza homogeneotan, 2003/2014 epealdian metatutako bariazioa +%4,6koa da.



4. PENTSIOAK

Pentsioen datuak aztertzen hasi baino lehen aipatu beharra dago 2012. urterako zenbait hobekuntza sartu zirela pentsiodunen informazioaren kalitatea hobetzeko. 2012. urte arte informazio hutsuneak zirela-eta balio gabe geratzen ziren erregistro askoren datuak eskuratu ahal izan dira 2012an, 2013an eta 2014an. Ondorioz, 2012an aztertutako pentsiodunen kolektiboa handitu egin zen. Aldaketa horren eraginez, aztertutako pentsiodun kopurua %3,8 handitu zen 2011rekin alderatuta, eta jasotako pentsioak, berriz, %3,0. Beraz, 2012an, 2013an eta 2014an datu homogeneoak dira.

2014. urtean pentsio publikoak 169.641 pertsonen jaso dituzte, iaz baino %1,3 gehiagok. Jasotako pentsioen zenbateko osoa 2.846 milioi euro izan dira, 2013n baino %6,0 handiagoa. Pertsona bakoitzak jasotako batez besteko pentsioa 16.774 eurokoa izan da.

Taula 25. Pentsioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2003	140.342		1.456.422.062		10.378	
2004	140.562	0,2	1.544.633.995	6,1	10.989	5,9
2005	143.477	2,1	1.678.534.754	8,7	11.699	6,5
2006	144.982	1,0	1.809.162.433	7,8	12.479	6,7
2007	146.924	1,3	1.903.996.753	5,2	12.959	3,9
2008	149.553	1,8	2.091.797.832	9,9	13.987	7,9
2009	151.700	1,4	2.175.298.682	4,0	14.339	2,5
2010	153.428	1,1	2.269.200.613	4,3	14.790	3,1
2011	156.316	1,9	2.405.967.681	6,0	15.392	4,1
2012(*)	164.946	5,5	2.566.046.320	6,7	15.557	1,1
2013	167.526	1,6	2.685.394.580	4,7	16.030	3,0
2014	169.641	1,3	2.845.631.389	6,0	16.774	4,6
2003/2014		20,9		95,4		61,6

Zenbatekoak eurotan

(*) Urte honetan informazioaren kalitatean zenbait hobekuntza sartu dira, eta ondorioz pentsiodun kopurua %3,8 igo da, eta zenbatekoa %3,0.



Azken hamabi urteetan pentsioak jaso dituzten pertsona kopurua %20,9 igo da. Eta igoera etengabea izan da urtez urte.

Jasotako pentsioei dagokionez, %95,4 igo dira 2003. urtetik: 1.456 milioi eurotik 2.846 milioi eurora. Kasu honetan ere, igoerak urtero eman dira etenik gabe. Pertsonako batez besteko pentsioa %61,6 igo da hamabi urteko epealdi honetan: 10.378 eurotik 16.774 eurora. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %27,8 igo dela.

Datu horiek, pentsio publikoen arloan azken urteetan eman diren aldaketa garrantzitsuen isla garbia dira. Alde batetik, populazioaren adin-piramidea dela-eta pentsioa jasotzeko eskubidea duten pertsona kopurua etengabe handitzen ari da; eta beste alde batetik, sistemara gehitzen diren pertsona berriek gero eta pentsio altuagoekin egiten dute, izan ere, sistema egin dituzten kotizazioak handiagoak izan dira.


4.1 Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2014. urteko 169.641 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 7.061aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %4,2ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %48,9 emakumezkoa da, eta beste %51,1 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %38,7 jasotzen dute, eta gizonezkoek %61,3.




Grafikoa 8 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2014



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 13.417 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 20.350 eurokoa.

Grafikoa 9 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2014



Azken hamabi urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 61.293 tik 79.557ra pasa dira (+%29,8), eta gizonezkoak 63.923tik 83.023ra (+%29,9).



Taula 26. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	61.293		63.923	
2004	64.492	5,2	67.617	5,8
2005	68.668	6,5	72.050	6,6
2006	69.546	1,3	72.803	1,0
2007	70.561	1,5	73.790	1,4
2008	72.255	2,4	75.289	2,0
2009	73.495	1,7	76.150	1,1
2010	74.474	1,3	77.080	1,2
2011	75.836	1,8	78.545	1,9
2012	77.509	2,2	80.365	2,3
2013	78.570	1,4	81.665	1,6
2014	79.557	1,3	83.023	1,7
2003/2014		29,8		29,9

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamabi urteetan: +%120,8 (483 milioi eurotik 1.067 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 863 milioi eurotik 1.689 milioi eurora pasa dira (+%95,8). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 2,8 puntu igo da azken hamabi urteetan: 2003ko %35,9tik lehen aipatutako %38,7ra. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %64,1etik %61,3ra.

Taula 27. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	483.379.032		862.905.899	
2004	544.193.410	12,6	945.751.818	9,6
2005	611.677.608	12,4	1.041.540.553	10,1
2006	666.848.021	9,0	1.116.405.747	7,2
2007	704.989.053	5,7	1.172.381.791	5,0
2008	777.362.820	10,3	1.293.248.990	10,3
2009	813.869.304	4,7	1.338.851.475	3,5
2010	853.735.358	4,9	1.393.467.600	4,1
2011	908.519.425	6,4	1.474.680.151	5,8
2012	951.743.221	4,8	1.529.034.399	3,7
2013	999.917.213	5,1	1.596.829.770	4,4
2014	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
2003/2014		120,8		95,8



2003tik 2014ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %70,1 igo da: 7.886 eurotik 13.417 eurora. Gizonezkoena, berriz, %50,7 igo da: 13.499 eurotik 20.350 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %27,8 igo da.


Taula 28. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	7.886		13.499	
2004	8.438	7,0	13.987	3,6
2005	8.908	5,6	14.456	3,4
2006	9.589	7,6	15.335	6,1
2007	9.991	4,2	15.888	3,6
2008	10.759	7,7	17.177	8,1
2009	11.074	2,9	17.582	2,4
2010	11.464	3,5	18.078	2,8
2011	11.980	4,5	18.775	3,9
2012	12.279	2,5	19.026	1,3
2013	12.726	3,6	19.553	2,8
2014	13.417	5,4	20.350	4,1
2003/2014		70,1		50,7

Azken hamabi urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2003. urtean %41,6koa zen eta 2013an %34,1ekoa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %34,1 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan, berriz, handitu egin da: 2003an 5.613 euroko aldea zegoen, eta 2014an 6.933 eurokoa da.

Grafikoa 10 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera





4.2. Pentsioak adinaren arabera

Pentsiodunen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2014. urteko 169.641 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 4.035aren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,4ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

55 urtetik beherako pentsiodunen kopurua oso txikia da: guztien %5,6. Gero, adinean aurrera joan ahala kopuruak handitu egiten dira: 56-65 bitartekoak %18,5 dira (30.607 pertsona); 66-75 bitartean 59.418 pentsiodun daude (%35,9); eta gehiengoa azken tartean dago (75 urtetik gorakoa): 66.361 pertsona, hau da, guztien %40,1.

Taula 29. Pentsioak adin tarteen arabera - 2014

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	67	0,0	483.273	0,0	7.213
26 - 35	462	0,3	4.779.340	0,2	10.345
36 - 55	8.691	5,2	115.186.971	4,1	13.254
56 - 65	30.607	18,5	564.154.540	20,2	18.432
65 - 75	59.418	35,9	1.132.032.495	40,4	19.052
> 75	66.361	40,1	982.305.092	35,1	14.802
Guztira	165.606	100,0	2.798.941.711	100,0	16.901

Zenbatekoak eurotan

Pentsioen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak (55 urtetik beherakoak) pentsio osoen %4,3 jasotzen dute; 56 eta 65 bitartekoak 564 milioi euro (%20,2); 66-75 bitartekoak 1.132 milioi euro (%40,4), eta zaharrenak (75 urtetik gorakoak) %35,1a.

Bestalde, batez besteko pentsiorik handiena 65 eta 75 urte bitartean dutenak jasotzen dute: 19.052 euro. Antzeko zenbatekoa jasotzen dute 56-65 bitartekoak (18.432 euro). Gero, jaitsi egiten da 75 urte baino gehiago dutenentzat: 14.802 euro.



4.3. Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera

Jasotako pentsioa tartetean banatzerakoan Gutxieneko Pentsioa (GP) erabili da. Bere balio 2014. urtean 8.404,2 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, lau tarte nabarmentzen dira:

- GParen 0,5 eta 1 arteko pentsioa jasotzaile guztien %11,2k jasotzen dute (19.028 pertsona).
- GParen 1 eta 1,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %27,3k jasotzen dute (46.290 pertsona).
- GParen 1,5 eta 2 arteko pentsioa jasotzaile guztien %15,3k jasotzen dute (25.954 pertsona).
- GParen 2 eta 2,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %13,7k jasotzen dute (23.202 pertsona).

Taula 30. Pentsioak GParen tarteen arabera - 2014

Errenta tarte (GP)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	5.261	3,1	12.236.769	0,4	2.326
0,5 - 1	19.028	11,2	120.487.313	4,2	6.332
1 - 1,5	46.290	27,3	458.014.767	16,1	9.894
1,5 - 2	25.954	15,3	381.416.482	13,4	14.696
2 - 2,5	23.202	13,7	435.744.786	15,3	18.780
2,5 - 3	16.241	9,6	373.563.052	13,1	23.001
3 - 3,5	12.444	7,3	339.059.735	11,9	27.247
3,5 - 4	9.316	5,5	292.388.239	10,3	31.386
4 - 4,5	10.884	6,4	385.516.871	13,5	35.421
4,5 - 5	408	0,2	16.159.719	0,6	39.607
> 5	613	0,4	31.043.656	1,1	50.642
Guztira	169.641	100,0	2.845.631.389	100,0	16.774

Zenbatekoak eurotan

(*) 2014an Gutxieneko Pentsioaren balio 8.404,2 eurokoa da

Azkenean, jasotzaile guztien ia-ia erdiak (%41,6) GParen 1,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 12.606,3 euro baino gutxiago. Eta ia-ia hiru laurdenak (%73,5) GParen 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 21.010,5 euro baino gutxiago.

Pentsioen zenbatekoari dagokionez, gehiena 1-1,5 tartean metatzen da (458 milioi euro; %16,1); gero 2-2,5 tarte dator (436 milioi euro; %15,3); eta 4-4,5 tarteko pentsiodunek 386 milioi euro kobratzen dituzte, guztiaren %13,5.



5 LANGABEZIA PRESTAZIOAK

2014. urtean langabezia prestazioak 61.091 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %12,6 gutxiagok. Zenbateko osoa 234 milioi eurokoa da, 2013n baino %18,5 txikiagoa. Pertsonako batez bestekoa 3.833 euro izan dira.

Taula 31. Langabezia prestazioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2003	36.726		111.829.270		3.045	
2004	31.352	-14,6	99.985.707	-10,6	3.189	4,7
2005	31.133	-0,7	102.152.477	2,2	3.281	2,9
2006	32.683	5,0	113.994.881	11,6	3.488	6,3
2007	39.285	20,2	137.181.954	20,3	3.492	0,1
2008	44.153	12,4	156.987.700	14,4	3.556	1,8
2009	70.433	59,5	285.313.630	81,7	4.051	13,9
2010	70.507	0,1	291.630.219	2,2	4.136	2,1
2011	66.108	-6,2	263.356.205	-9,7	3.984	-3,7
2012	71.399	8,0	297.871.931	13,1	4.172	4,7
2013	69.913	-2,1	287.350.180	-3,5	4.110	-1,5
2014	61.091	-12,6	234.185.693	-18,5	3.833	-6,7
2003/2014		66,3		109,4		25,9

Zenbatekoak eurotan

Azken hamabi urteetan langabezia prestazioak jaso dituzten pertsona kopurua igo egin da: 36.726tik 61.091ra (+%66,3). Igoerarik handienak 2007, 2008 eta 2009 urteetan eman ziren: +%20,2, +%12,4 eta +%59,5, hurrenez hurren. Hortik aurrera, eta 2011ko jaitsiera kenduta, langabezia prestazioa jaso duten pertsona kopurua 70.000 inguruan mantendu da. 2014an jaitsiera garrantzitsu bat eman da, %12,6 eta 8.822 pertsona jasotzaile.

Jasotako prestazioei dagokionez, %109,4 igo dira 2003. urtetik. Kasu honetan ere, igoerarik handienak 2007, 2008 eta 2009an eman ziren. Eta gehienbat, nabarmentzekoa azken urte horretan izandako igoera (+%81,7).

Pertsonako batez besteko langabezia prestazioa %25,9 igo da hamabi urteko epealdi honetan: 3.045 eurotik 3.833 eurora. Zenbatekorik handiena 2012koa izan da (4.172 euro).




5.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzeko hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2014. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 61.091 pertsonatik ez dugu ezagutzen 2.765aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %48,6 emakumezkoa da, eta beste %51,4 gizonezkoa. Zenbatekoari begiratzten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %44,5 jasotzen dute, eta gizonezkoek %55,5.

Grafikoa 11 - Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2014



Azken hamabi urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da:

- Emakumezkoen kopurua 12.792tik 28.340ra igo da (+%121,5).
- Gizonezkoen kopurua 14.453tik 29.986ra igo da (+%107,5)



Taula 32. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	12.792		14.453	
2004	13.224	3,4	14.183	-1,9
2005	15.123	14,4	15.015	5,9
2006	15.975	5,6	15.801	5,2
2007	20.475	28,2	17.656	11,7
2008	22.077	7,8	20.719	17,3
2009	28.487	29,0	39.797	92,1
2010	29.608	3,9	38.923	-2,2
2011	29.877	0,9	34.814	-10,6
2012	31.416	5,2	36.736	5,5
2013	30.715	-2,2	35.304	-3,9
2014	28.340	-7,7	29.986	-15,1
2003/2014		121,5		107,5

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %198,8 handitu da (33 milioi eurotik 100 milioi eurora), eta gizonezkoena %169,6 igo da (46 milioi eurotik 125 milioi eurora).

Taula 33. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	33.486.122		46.318.640	
2004	38.299.273	14,4	49.349.965	6,5
2005	45.386.805	18,5	53.962.114	9,3
2006	51.028.505	12,4	60.279.730	11,7
2007	67.049.120	31,4	66.728.197	10,7
2008	74.396.505	11,0	78.336.172	17,4
2009	105.920.643	42,4	171.846.876	119,4
2010	112.741.802	6,4	171.768.314	0,0
2011	110.552.896	-1,9	147.975.071	-13,9
2012	121.605.054	10,0	164.832.673	11,4
2013	117.290.070	-3,5	156.125.492	-5,3
2014	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
2003/2014		198,8		169,6



5.2. Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera

Lehenago aipatu dugun bezala, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Saikapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo M atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Gipuzkoan bizi diren langabezia prestazio jasotzaileen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2014an %91,4 dira bertakoak eta beste %8,6 atzerritarrak.

Dena den azken hamabi urteetan atzerritarren partaidetza asko handitu da: 2003an 940 atzerritarrek jaso zuten langabezia prestazioa, eta 2014an 5.248 dira; hau da, %458,3 gehiago. Azken lau urteak kenduta, igoerak urtero eman dira.

Taula 34. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2003	35.786		940	
2004	30.293	-15,3	1.059	12,7
2005	29.807	-1,6	1.326	25,2
2006	30.930	3,8	1.753	32,2
2007	36.662	18,5	2.623	49,6
2008	40.095	9,4	4.058	54,7
2009	64.345	60,5	6.088	50,0
2010	63.682	-1,0	6.825	12,1
2011	59.392	-6,7	6.716	-1,6
2012	64.688	8,9	6.711	-0,1
2013	63.947	-1,1	5.966	-11,1
2014	55.843	-12,7	5.248	-12,0
2003/2014		56,0		458,3

Atzerritar kopuruaren igoera horrek isla izan dute langabezia prestazioen zenbatekoan; izan ere, beraiek jasotako zenbatekoa 2 milioi eurotik 17 milioi eurora pasa da (+%715,3). Bertakoak jasotakoa 110 milioi eurotik 217 milioi eurora pasa da (+%97,8)



Taula 35. Langabezia prestazioen bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2003	109.717.509		2.111.760	
2004	97.415.757	-11,2	2.569.951	21,7
2005	98.507.307	1,1	3.645.170	41,8
2006	109.214.517	10,9	4.780.365	31,1
2007	130.023.478	19,1	7.158.475	49,7
2008	145.296.998	11,7	11.690.702	63,3
2009	261.076.778	79,7	24.236.851	107,3
2010	265.347.326	1,6	26.282.893	8,4
2011	239.712.126	-9,7	23.644.079	-10,0
2012	273.039.124	13,9	24.832.807	5,0
2013	265.311.049	-2,8	22.039.131	-11,2
2014	216.968.717	-18,2	17.216.976	-21,9
2003/2014		97,8		715,3

5.3. Langabezia prestazioak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2014. urtean langabezia prestazioa 61.091 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 2.113ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

25 urtetik beherakoak jasotzaile guztien %3,4 dira; eta hortik aurrera banaketa nahiko orekatua da: 26-35 tartean %22,9a dago; 36 eta 45 urte tartean %28,4a; 46-55 tartean %24,6a; eta 55 urtetik gorakoen tartean %20,7a.

Taula 36. Langabezia prestazioak adin tarteen arabera - 2014

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	2.030	3,4	4.606.646	2,0	2.269
26-35	13.503	22,9	43.034.859	18,9	3.187
36-45	16.733	28,4	63.191.757	27,8	3.776
46-55	14.489	24,6	54.680.605	24,1	3.774
> 55	12.223	20,7	61.793.822	27,2	5.056
Guztira	58.978	100,0	227.307.690	100,0	3.854

Zenbatekoak eurotan



Langabezia prestazioaren zenbatekoari begiratuta, oreka oraindik ere handiagoa da. Lehen tarteak izan ezik (%2,0), beste guztiak antzeko balioak dituzte:

- 26-35 tarteak zenbateko osoaren %18,9 metatzen du.
- 36-45 tarteak zenbateko osoaren %27,8 metatzen du.
- 46-55 tarteak zenbateko osoaren %24,1 metatzen du.
- 55 urtetik gorakoek zenbateko osoaren %27,2 metatzen dute.

5.4. Langabezia prestazioa LGSren tarteetan arabera

Jasotako soldata tarteetan banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2014. urtean 9.034,2 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, gehiengo nagusia (%65,7) lehen tarteetan dago; horrek esan nahi du 4.517,1 euro baino gutxiago jaso dituztela. LGSren 0,5 eta 1 bitartean 15.617 pertsonak jaso dute (%25,6); eta hortik aurrera, hau da, 9.034,2 euro edo gehiago jasotzaile guztien %8,7k jasotzen du.

Taula 37. Langabezia prestazioak LGSren tarteetan arabera - 2014

Errenta tarteak (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	40.109	65,7	78.458.322	33,5	1.956
0,5 - 1	15.617	25,6	92.199.282	39,4	5.904
1 - 1,5	4.534	7,4	50.967.423	21,8	11.241
1,5 - 2	824	1,3	12.413.946	5,3	15.065
> 2	7	0,0	146.719	0,1	20.960
Guztira	61.091	100,0	234.185.693	100,0	3.833

Zenbatekoak eurotan

(*) 2014an Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 9.034,2 eurokoa da

Langabezia prestazioaren zenbatekoaren %33,5a lehen tarteetakoak jaso dute, eta batez bestekoa 1.956 eurokoa da. LGSren 0,5 eta 1 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %39,4 metatzen dute (92 milioi euro; batez beste 5.904 euro). Hurrengo tarteetako jasotzaileak (LGS 1-1,5) aldiz zenbateko osoaren %21,8 jasotzen dute. Eta azken bi tarteetan portzentajea nabarmen jaisten da: LGS 1,5 eta 2 aldiz jasotzen dutenena %5,3 da; eta 2 aldiz baino gehiago jasotzen dutenena %0,1.



6 GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK

Atal honetan Gipuzkoako biztanleak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Sistema horietara egindako kontribuzioak eta ekarpenak ekitaldi horretako PFEZren oinarri ezargarria murrizten dute. Hurrengo urteetan, zenbatekoak erreskatatzen direnean, PFEZn integratzen dira, lan etekin bezala. Erreskateak bi motatakoak izan daitezke:

- Errenta moduan egindakoak: urtero zenbateko bat jasotzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoa osoa PFEZren oinarri ezargarri orokorrean integratzen da, lan etekin bezala.
- Kapital moduan egindakoak: zenbateko guztia batera erreskatatzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoaren %60a PFEZren oinarri ezargarrian integratzen da, lan etekin bezala.

6.1. Errenta moduan egindako erreskateak

2014. urtean errenta moduan 21.976 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %19,5 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa osoa (128 milioi euro) %33,9 jaitsi da 2013rekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 5.805 euro izan dira.

Taula 38. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2003	16.415		102.202.072		6.226	
2004	18.600	13,3	107.680.758	5,4	5.789	-7,0
2005	19.331	3,9	111.979.526	4,0	5.793	0,1
2006	19.993	3,4	120.727.476	7,8	6.038	4,2
2007	20.906	4,6	123.007.578	1,9	5.884	-2,6
2008	22.343	6,9	136.237.625	10,8	6.098	3,6
2009	23.460	5,0	144.160.419	5,8	6.145	0,8
2010	24.516	4,5	154.237.984	7,0	6.291	2,4
2011	24.722	0,8	162.990.707	5,7	6.593	4,8
2012	26.146	5,8	177.742.598	9,1	6.798	3,1
2013	27.292	4,4	192.988.985	8,6	7.071	4,0
2014 (*)	21.976	-19,5	127.571.292	-33,9	5.805	-17,9
2003/2014		33,9		24,8		-6,8

Zenbatekoak eurotan



(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Lehenago B gakoak (pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bi azpigako besterik ez zituen. 2014tik aurrera 10 azpigako baino gehiagotan banatzen da, eta horrela etekinak zehaztasun askoz gehiagorekin sailkatzen dira. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen B02 (gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain beste azpigako batzuekin aitortzen dituzte, eta pensio bezala sailkatzen dira. Irizpide aldaketa horrek 27 puntuko distortsio negatiboa sortzen du jasotzaile kopuruari dagokionez eta 45,5 puntukoa zenbatekoan.

Taularen oineko oharrean azaltzen den bezala, 190 ereduan sartu diren aldaketek eragin handia izan dute datuetan. Nahiz eta 2014. urtean jaitziera handia ematen den, bai kopuruan (-%19,5) eta baita zenbatekoan (-%33,9) ere, konparaketa baldintza homogeneotan eginez gero, bariazioak hauek izango lirateke:

- Jasotzaile kopurua %7,5 handituko zen 2013arekin alderatuta. eta %78,7 2003rekin eginda.
- Zenbateko osoa %11,6 handituko zen 2013arekin alderatuta. eta %110,7 2003rekin eginda.
- Batez besteko zenbatekoa, 2014. urtean 2013an baino %3,8 handiagoa izango zen eta 2003an baino %78,7 handiagoa.

Oro har, eta aztertutako epealdi osoan, errenta moduan erreskatea egiten duten pertsona kopurua etengabe handitzen da, eta berdin zenbatekoa osoa.

6.1.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera


Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortzen datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2014. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 21.976 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 713ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %43,5 emakumezkoak dira, eta beste %56,5 gizonezkoak. Baina zenbatekoari



begirazten badiogu, emakumezkoek guztiaren %34,6 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %65,4.

Grafikoa 12 - Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2014



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2014. urtean 4.650 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 6.752 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamabi urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua ia bikoiztu egin da: 4.958tik 9.244ra (+%86,4). Gizonezkoak, berriz, 9.014tik 12.019era pasa dira (+%33,3). Bi kasuetan urtero eman dira igoserak, etekin gabe, 2014an izan ezik (lehen aipaturako aldaketa eman delako 190 ereduari).



Taula 39. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	4.958		9.014	
2004	5.655	14,1	10.714	18,9
2005	6.590	16,5	11.990	11,9
2006	6.829	3,6	12.490	4,2
2007	7.149	4,7	12.562	0,6
2008	8.061	12,8	13.608	8,3
2009	8.944	11,0	13.832	1,6
2010	9.376	4,8	14.440	4,4
2011	9.562	2,0	14.480	0,3
2012	10.113	5,8	14.941	3,2
2013	10.648	5,3	15.463	3,5
2014	9.244	-13,2	12.019	-22,3
2003/2014		86,4		33,3

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2003an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 24 milioi euro izan ziren bitartean, 2014an 43 milioi euro izan dira; hau da, %77,5 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, urte guztietan bariazio positiboak izan dituzte, 2014an izan ezik (lehen aipatutako aldaketa eman delako 190 ereduan).

Taula 40. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	24.214.183		69.997.978	
2004	26.120.552	7,9	76.326.462	9,0
2005	29.127.113	11,5	80.227.420	5,1
2006	31.584.949	8,4	86.760.870	8,1
2007	33.389.767	5,7	86.921.447	0,2
2008	39.053.609	17,0	94.693.137	8,9
2009	42.720.587	9,4	98.725.921	4,3
2010	45.701.618	7,0	105.567.094	6,9
2011	48.801.743	6,8	111.372.260	5,5
2012	54.138.617	10,9	116.647.917	4,7
2013	59.949.583	10,7	125.422.345	7,5
2014	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
2003/2014		77,5		15,9

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %79,2 igo dira hamaika urte hauetan: 70 milioi eurotik 125 milioi eurora. Hauek ere urtero bariazio positiboak izan dituzte, 2014an izan ezik (lehen aipatutako aldaketa eman delako 190 ereduan).



6.1.2. Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2014. urteko 21.976 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 442ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2014. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (281; guztiaren %1,3) egin dituzte erreskateak. Adinean aurrera joan ahala, kopurua handitu egiten da: 26-35 urte bitartekoak %9,4 dira; 36-55 bitartekoak %25,0; 56-65 bitartekoak %22,0; 66-75 bitartekoak %22,7; eta, azkenik, errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %19,6k 75 urte baino gehiago dute.

Taula 41. Errenta moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera - 2014

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	281	1,3	675.515	0,5	2.404
26-35	2.027	9,4	7.187.153	5,7	3.546
36-55	5.379	25,0	15.584.948	12,4	2.897
56-65	4.730	22,0	35.493.447	28,2	7.504
66-75	4.887	22,7	36.555.321	29,1	7.480
>75	4.230	19,6	30.300.554	24,1	7.163
Guztira	21.534	100,0	125.796.938	100,0	5.842

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 55 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %18,6a erreskatatzen dute; 56-65 bitartekoak %28,2; 66-75 bitartekoak %29,1; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %24,1.

Datuak horrela izanda, erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekoa nabarmen handitzen da adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, azken hiru tartek 7.000 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak dituzte.

6.1.3. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2014an erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, guztien heren batek baino gehiagok (%45,0) 1.000 euro eta 5.000 euro bitarteko errenta jaso



du. Ondoren datoz 5.000 eta 10.000 euro bitartean jaso dutenak (%16,7), eta gero 0 eta 500 euro bitartekoak (%13,3). 500 euro eta 1.000 euro bitartekoak kopuru osoaren %10,3 dira (2.268 pertsona); beste 2.153 pertsonak (%9,8) 10.000 euro eta 20.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handienetan, berriz, 791 pertsonak (guztien %3,6) 20.000–50.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu du; eta 50.000 euro baino gehiago 273 pertsonak erreskatatu dute.

Taula 42. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera – 2014

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	2.931	13,3	745.734	0,6	254
500 - 1.000	2.268	10,3	1.683.286	1,3	742
1.000 - 5.000	9.898	45,0	24.560.090	19,3	2.481
5.000 - 10.000	3.662	16,7	26.145.273	20,5	7.140
10.000 - 20.000	2.153	9,8	29.902.633	23,4	13.889
20.000 - 50.000	791	3,6	23.471.789	18,4	29.674
>50.000	273	1,2	21.062.487	16,5	77.152
Guztira	21.976	100,0	127.571.292	100,0	5.805

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua handiago da:

- 10.000–20.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %23,4 erreskatatzen dute (30 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartekoek 26 milioi euro erreskatatu dituzte (%20,5).
- 1.000-5.000 tartekoak: 25 milioi euro (%19,3).
- 20.000-50.000 tartean daudenak %18,4 (23 milioi euro).
- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (21 milioi euro), zenbateko osoaren %16,5 dira.
- Beheko bi tartekak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,6, eta 500-1.000 euro bitartekoak %1,3.



6.1.4. Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2014an errenta moduan erreskateak egin dituzten 21.976 pertsonetatik 13.084k (%59,5) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 8.892 pertsonak (%40,5) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Nolabait ulertu daiteke, pentsio publikoa eta errenta moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, urtero horrela egingo dutela. Hau da, gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala erabiltzen dutela.

Erreskatatutako 128 milioi eurotik, 90 milioi (%70,2) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 38 milioi euro (%29,8) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.

Batez beste erreskatea 6.844 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 4.277 eurokoa besteentzat.

**Grafikoa 13 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak
2014**




Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 20.817 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, 2014an guztira 27.661 euro jaso dute, %75,3a pentsio publikoetatik eta beste %24,7 gizarte aurreikuspeneko entitateetatik errenta moduan egindako erreskateetatik.

Erreskatatutako batez besteko zenbatekoa (6.844 euro) pentsio publikoaren batez bestekoaren (20.817 euro) %32,9 da.



Grafikoa 14 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2014



6.2. Kapital moduan egindako erreskateak

2014. urtean kapital moduan 13.714 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %2,9 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa baita ere jaitsi egin da (-%16,3), eta 207 milioi eurotara iritsi da. Pertsonako batez bestekoa 15.061 euro izan dira.

Bilakaera negatibo eman zen 2012. eta 2014. urteetan eta 2008. urte arte eman zen egoerara itzulera nabarmentzen da. 2012ko bilakaera negatiboak badu bere arrazoia: 2012rako aldaketa sakonak sartu ziren Gizarte Aurreikuspeneko sistemataraz egindako ekarpen eta kontribuzioengatik PFEZn egiten ziren murrizpenean. Esaterako, gehieneko mugak jaitsi egin ziren, ezabatu egin zen 67 urtetik gorako zergadunen murrizpena... Aldaketa horiek guztiak mugimendu handiak ekarri zituzten 2011ko erreskateetan, eta ondorioz zenbatekoak asko handitu ziren urte horretan (+%36,4).

Azken hamabi urteetan kapital moduan erreskateak egin dituzten pertsona kopurua %119,5 igo da: 6.248tik 13.714ra. Azken hiru urteak kenduta (-%8,2, -%5,4 eta -%2,9), beste guztietan igoerak eman dira.



Taula 43. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2003	6.248		49.170.029		7.870	
2004	6.247	0,0	59.621.383	21,3	9.544	21,3
2005	6.626	6,1	76.286.111	28,0	11.513	20,6
2006	7.795	17,6	107.838.480	41,4	13.834	20,2
2007	9.045	16,0	135.065.118	25,2	14.933	7,9
2008	13.203	46,0	219.581.173	62,6	16.631	11,4
2009	14.477	9,6	233.096.657	6,2	16.101	-3,2
2010	14.746	1,9	263.991.201	13,3	17.903	11,2
2011	16.253	10,2	360.197.636	36,4	22.162	23,8
2012	14.920	-8,2	223.017.309	-38,1	14.948	-32,6
2013	14.120	-5,4	246.638.361	10,6	17.467	16,9
2014	13.714	-2,9	206.549.120	-16,3	15.061	-13,8
2003/2014		119,5		320,1		91,4

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoei dagokionez, %320,1 igo dira 2003. urtetik: 49 milioi eurotik 207 milioi eurora. Mailarik handien 2011. urtean lortu zen: 360 milioi euro.

Pertsonako batez besteko erreskatea %91,4 igo da azken hamabi urteetan: 7.870 eurotik 15.061 eurora.


6.2.1. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2014. urteko 13.714 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 284ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %40,4 emakumezkoak dira, eta beste %59,6 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %36,6 erreskatatzen dute (75 milioi euro), eta gizonezkoek %63,4 (130 milioi euro).



Grafikoa 15 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2014



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2014. urtean 13.808 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 16.211 eurokoa.

Azken hamabi urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua ia-ia 5 bider handitu da: 1.199tik 5.427ra (+%352,6). Gizonezkoak, berriz, 4.148tik 8.003ra pasa dira (+%92,9). 2012. eta 2013. urteak kenduta, beste guztietan urtero eman dira igoerak.

Taula 44. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	1.199		4.148	
2004	1.315	9,7	4.168	0,5
2005	1.786	35,8	4.657	11,7
2006	2.266	26,9	5.370	15,3
2007	2.853	25,9	5.972	11,2
2008	4.387	53,8	8.569	43,5
2009	4.779	8,9	9.382	9,5
2010	4.873	2,0	9.541	1,7
2011	5.856	20,2	10.079	5,6
2012	5.533	-5,5	9.040	-10,3
2013	5.197	-6,1	8.526	-5,7
2014	5.427	4,4	8.003	-6,1
2003/2014		352,6		92,9



Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2003an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 11 milioi euro izan ziren bitartean, 2014an 75 milioi euro izan dira; hau da, %613,5 gehiago. Eta hori, 2011rekin alderatuta jaitsi egin dela; izan ere, urte horretan emakumezkoak kapital moduan erreskatatutako zenbatekoa 114 milioi euro tara iritsi zen.

Taula 45. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2003	10.502.086		31.528.416	
2004	13.397.490	27,6	39.625.595	25,7
2005	21.048.907	57,1	53.600.713	35,3
2006	28.542.382	35,6	78.153.354	45,8
2007	39.305.912	37,7	93.704.750	19,9
2008	59.631.290	51,7	157.736.632	68,3
2009	68.624.348	15,1	162.269.923	2,9
2010	76.459.403	11,4	185.100.687	14,1
2011	113.650.983	48,6	243.672.147	31,6
2012	73.435.474	-35,4	146.978.897	-39,7
2013	78.989.960	7,6	163.928.931	11,5
2014	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
2003/2014		613,5		311,5

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %311,5 igo dira hamabi urte hauetan: 32 milioi eurotik 130 milioi eurora. Hauek ere 2011n lortu zuten zenbatekorik altuena: 244 milioi euro.

6.2.2. Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2014. urteko 13.714 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 139ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketara ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2014. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (133; guztiaren %1,0) egin dituzte erreskateak kapital moduan, eta 26-35 bitartekoak 561 dira (%4,1). Erdiko bi tartekak dira pertsona gehien metatzen dituztenak: 36-55 bitartekoak %33,2 eta 56-65 bitartekoak %39,8. Ondoren, adinean aurrera joan ahala gutxitu egiten dira: 66-75 bitartekoak %16,7, eta, azkenik, kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %5,2k 75 urte baino gehiago dute.



Taula 46. Kapital moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera
- 2014

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	133	1,0	1.281.252	0,6	9.633
26-35	561	4,1	3.007.884	1,5	5.362
36-55	4.511	33,2	33.590.446	16,3	7.446
56-65	5.404	39,8	105.899.695	51,5	19.597
66-75	2.265	16,7	50.637.486	24,6	22.357
>75	701	5,2	11.029.469	5,4	15.734
Guztira	13.575	100,0	205.446.231	100,0	15.134

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 35 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %2,1a erreskatatzen dute; 36-55 bitartekoak %16,3; 56-65 bitartekoak guztiaren erdia baino gehiago (%51,5); 66-75 bitartekoak %24,6; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %5,4.

Datuak horrela izanda, kapital moduan erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekorik altuena 66-75 urtekoek dute: 22.357 euro.

6.2.3. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2014an kapital moduan erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, laurden batek baino gehiagok (%28,1) 1.000 eta 5.000 euro bitartean jaso ditu. Ondoren datoz 5.000 eta 10.000 euro bitartean jaso dutenak (%16,8), gero 20.000 – 50.000 euro bitartekoak (%16,7), eta 10.000–20.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu dutenak %15,7 dira.

Taula 47. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera -
2014

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	1.356	9,9	223.731	0,1	165
500 - 1.000	955	7,0	697.456	0,3	730
1.000 - 5.000	3.858	28,1	10.853.906	5,3	2.813
5.000 - 10.000	2.304	16,8	16.658.048	8,1	7.230
10.000 - 20.000	2.157	15,7	31.258.026	15,1	14.491
20.000 - 50.000	2.287	16,7	70.675.984	34,2	30.903
>50.000	797	5,8	76.181.971	36,9	95.586
Guztira	13.714	100,0	206.549.120	100,0	15.061

Zenbatekoak eurotan



Zenbateko gutxien erreskatatu dutenak (500 euro baino gutxiago), kopuru osoaren %9,9 dira (1.356 pertsona); beste 955 pertsonek (%7,0) 500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handiengan (50.000 euro baino gehiago), berriz, 797 pertsona daude, guztien %5,8.

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua nabarmen handiago da:

- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (76 milioi euro), zenbateko osoaren %36,9 dira.
- 20.000-50.000 tartean daudenak %34,2 (71 milioi euro).
- 10.000–20.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %15,1 erreskatatzen dute (31 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartekoek 17 milioi euro erreskatatu dituzte (%8,1).
- 1.000-5.000 tartekoak: 11 milioi euro (%5,3).
- Beheko bi tarteak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,1, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,3.

6.2.4. Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak

2014an kapital moduan erreskateak egin dituzten 13.714 pertsonetatik 6.908k (%50,4) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 6.806 pertsonek (%49,6) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.


Pentsio publikoa eta kapital moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, ez dute erabiltzen gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala. Baizik eta urte zehatz batean egindako aukeraketa bat da, hurrengoetan errepikatuko ez dena.

Guztira erreskatatutako 207 milioi eurotik, 144 milioi (%70,0) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 62 milioi euro (%30,0) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.




Batez beste erreskatea 20.917 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 9.118 eurokoa besteentzat.

Grafikoa 16 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2014



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 19.174 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, gehiago jasotzen dute gizarte aurreikuspeneko entitateetako erreskateetatik (20.917 euro) pentsio publikoetatik baino.

Grafikoa 17 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2014





6.3. Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak

Gizarte aurreikuspeneko erreskateak egiteko modua nabarmen aldatu da azken hamabi urteetan: 2003. urtean erreskate guztien %72,4a errenta moduan egiten zen, eta 2014an, aldiz, %61,6a egiten da, hau da, 10,8 puntu gutxiago.

Era berean, kapital moduan egindako erreskateak 6.248 izatetik (%27,6) 13.714 izatera (%38,4) pasa dira 2003tik 2014ra.

Taula 48. Errenta eta kapital moduan egindako erreskate kopuruaren bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	% errenta	% kapital
2003	16.415		6.248		22.663		72,4	27,6
2004	18.600	13,3	6.247	0,0	24.847	9,6	74,9	25,1
2005	19.331	3,9	6.626	6,1	25.957	4,5	74,5	25,5
2006	19.993	3,4	7.795	17,6	27.788	7,1	71,9	28,1
2007	20.906	4,6	9.045	16,0	29.951	7,8	69,8	30,2
2008	22.343	6,9	13.203	46,0	35.546	18,7	62,9	37,1
2009	23.460	5,0	14.477	9,6	37.937	6,7	61,8	38,2
2010	24.516	4,5	14.746	1,9	39.262	3,5	62,4	37,6
2011	24.722	0,8	16.253	10,2	40.975	4,4	60,3	39,7
2012	26.146	5,8	14.920	-8,2	41.066	0,2	63,7	36,3
2013	27.292	4,4	14.120	-5,4	41.412	0,8	65,9	34,1
2014	21.976	-19,5	13.714	-2,9	35.690	-13,8	61,6	38,4
2003/2014		33,9		119,5		57,5		

Aldaketa hori, oraindik ere nabarmenagoa izan da zenbatekoa begiratuta:

- 2003an erreskatatutako zenbateko osoaren %67,5a errenta moduan egiten zen, eta beste %32,5a kapital moduan; 151 milioi eurotik 102 milioi euro errenta bezala eta 49 milioi euro kapital moduan.
- 2014an errenta moduak egindako erreskateak 128 milioi euro izan dira eta kapital moduan egindakoak 207 milioi euro; zenbateko osoaren %38,2 eta %61,8, hurrenez hurren.



Hemen ere joera aldaketa urtez urte nabari da 2012 arte; hor, PFEZren arau aldaketa dela-eta, errenta moduan egindako erreskateak pisua irabazi dute 2011rekin alderatuta. 2013. urtean 2012ko egoera mantentzen da eta 2014. urtean errenta moduan egindako erreskateak berriro pisua galtzen dute. Halere, erreskate guztiaren erdia baino gehiago kapital moduan egiten da.

Taula 49. Errenta eta kapital moduan egindako erreskateen zenbatekoen bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	% errenta	% kapital
2003	102.202.072		49.170.029		151.372.101		67,5	32,5
2004	107.680.758	5,4	59.621.383	21,3	167.302.141	10,5	64,4	35,6
2005	111.979.526	4,0	76.286.111	28,0	188.265.637	12,5	59,5	40,5
2006	120.727.476	7,8	107.838.480	41,4	228.565.957	21,4	52,8	47,2
2007	123.007.578	1,9	135.065.118	25,2	258.072.696	12,9	47,7	52,3
2008	136.237.625	10,8	219.581.173	62,6	355.818.798	37,9	38,3	61,7
2009	144.160.419	5,8	233.096.657	6,2	377.257.076	6,0	38,2	61,8
2010	154.237.984	7,0	263.991.201	13,3	418.229.185	10,9	36,9	63,1
2011	162.990.707	5,7	360.197.636	36,4	523.188.343	25,1	31,2	68,8
2012	177.742.598	9,1	223.017.309	-38,1	400.759.907	-23,4	44,4	55,6
2013	192.988.985	8,6	246.638.361	10,6	439.627.346	9,7	43,9	56,1
2014	127.571.292	-33,9	206.549.120	-16,3	334.120.412	-24,0	38,2	61,8
2003/2014		24,8		320,1		120,7		

Zenbatekoak eurotan